# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2013ko urriaren 14a | 117. ZK.


**A U R K I B I D E A**


G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—“Sozietate publikoei egindako mandatuak, 2011” izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# "Sozietate publikoei egindako mandatuak, 2011" izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, "Sozietate publikoei egindako mandatuak, 2011" izenekoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## "Sozietate publikoei egindako mandatuak, 2011" izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Foru Komunitateko Sozietate Publikoak (3. or.).

II.1. Enpresa sektore publikoaren definizioa eta egitura (3. or.).

II.2. Sozietate publikoen esku utzitako mandatuak (5. or.).

II.3. Araubide juridikoa (5. or.).

**III.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (7. or.).

**IV.** Ondorioak eta aholkuak (8. or.).

IV.1. Mandatuak 2011n (8. or.).

IV.2. Mandatuen prezioak (9. or.).

IV.3. Hirugarrenekin kontrataturiko mandatuak (10. or.).

**V.** Sozietate Publikoen esku utzitako mandatuak (12. or.).

V.1. Trabajos Catastrales, S.A. (12. or.).

V.2. Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L. (18. or.).

V.3. Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (22. or.).

V.4. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias (27. or.).

V.5. Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A.U. (33. or.).

V.6. Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.U. (39. or.).

Eranskina: Sozietate Publikoei 2011n egindako mandatuak (45. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (52. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (52. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskaturik, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio-txostena eskatzea "Nafarroako Gobernuak mandatu publiko deituetan enpresa publikoei ordaindutako prezioei buruz".

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2012. eta 2013. urteetarako onartu zituen urteko fiskalizazio-programetan sartu zen, eta auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Landa-lana 2012an hasi eta 2013ko martxoan amaitu zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eta erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. FORU KOMUNITATEKO SOZIETATE PUBLIKOAK

### II.1. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN DEFINIZIOA ETA EGITURA

Sozietate bat publikoa da baldin eta hartan Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek:

- Zuzenean edo zeharka parte hartzen badute, sozietatearen kapitalaren gehiengo osoaren adierazgarri den partaidetzarekin.
- Administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzeko ahalmena badute; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa.

2009. urtean "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." izeneko sozietatea sortu zen, eta 2010eko abenduan Nafarroako Enpresa Sektore Publikoa Antolatzeko eta Berregituratzeko Plana onetsi zen.

2010eko abenduaren 31n, Foru Komunitateko Administrazioak "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." sozietatearen kapitalean partaidetza osoa zeukan, eta sozietate horrek, berriz, ehuneko 50etik gorako partaidetza zuen, zuzenean nahiz zeharka, 38 sozietate publikotan.

Sozietateen arteko bat-egite prozesua egin zen 2011. urtean zehar. Hartara 13 sozietate publiko berri sortu ziren, Enpresa Korporazio Publikoaz gainera, eta hasierako 38 sozietateetatik bost gelditu ziren: Potasas de Subiza, Sal Doméstica, Salinas de Navarra, Miyabi (Natural Clymate Systems) eta Start Up Capital Navarra.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak, 2013ko maiatzaren 13an, sozietate publikoen kopurua 13tik zortzira murriztea onetsi zuen.

Ondoko taulan ageri da Foru Komunitateko enpresa sektore publikoak 2011. urtean zuen egitura.

| Ondoriozko enpresa publikoa | Sozietate xurgatzailea/berria | Xurgatutako sozietateak | Jarduera ekonomikoa |
|---|---|---|---|
| 1.Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. (NEKP) | Sozietate nagusia | | |
| 2. Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA) | Viviendas de Navarra, S.A. (VINSA) | Navarra de Suelo Residencial, SA (NASURSA)<br>Navarra de Suelo Industrial, SA (NASUINSA) | Lurzorua eta etxebizitza |
| 3. Agenc. Navarra del Transporte y Logística, S.A. (ANL) | Ciudad del Transp. Pamplona, S.A. (CTPSA) | Agencia Nav. Transp. y Logística, S.A. (ANL) | Garraioa eta logistika |
| 4. Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L. (CAT) | Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean | | Nekazaritzako elikagaiak |
| 5. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. (INTIA) | Riegos del Canal de Navarra, S.A. (RICAN) | Instit. Calidad Agroalimen. Navarra, S.A. (ICAN)<br>Instit. Téc. y de Gestión Agrícola, S.A. (ITGA)<br>Instit. Téc. y de Gestión Ganadero, S.A. (ITGG)<br>Riegos de Navarra, S.A. | Nekazaritzako elikagaiak |
| 6. Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN) | Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. (VIVEROS) | Navarra de Med. Amb. Indus. S.A. (NAMAINSA)<br>Echauri Forestal, S.L. | Ingurumena |
| 7. Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) | Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean | | Tokiko azpiegiturak |
| 8. Empresa Navarra de Espacios Culturales, S.A. (ENEC) | Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A. (BALUARTE) | Planetario de Pamplona, S.A. | Kultur espazioak |
| 9. Navarra Deporte y Ocio, S.L. (NDO) | Circuito Los Arcos, S.L. | Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. (SPRIN)<br>Territorio Roncalia, S.L. | Aisiako eta kiroleko azpiegitura arloz arlokoak |
| 10. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI) | Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean | | Hezkuntza eta talentua |
| 11. Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC) | Navarra de Servicios, S.A. (NASERSA) | Producción Informática de Navarra, S.L. (PIN)<br>Obras Púb. y Telecom. de Nav., S.A. (OPNATEL) | Adm. publikoentzako zerbitzuak eta teknologia |
| 12. Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. (CEIN) | Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L.<br>(Sortu berri den sozietatea) | Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.A. (CEIN)<br>Ag. Navarra de Innov. y Tecnología, S.A. (ANAIN)<br>Navarra de Verificaciones Legales, S.A. (NAVELSA) | Berrikuntza eta ekintzaileak |
| 13. Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA) | Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA) | Gestión de Deudas, S.A. (GEDESA) | Ogasuna eta ondarea |
| 14. Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. (SODENA) | Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L.<br>(Sortu berri den sozietatea) | Soc. de Desarrollo de Navarra, S.A. (SODENA)<br>Navarra de Finan. y Control, S.A. (NAFINCO)<br>Navarra de Gestión para la Admón., S.A. (NGA)<br>Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, S.A. | Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa |

Oharra: Guztiek ere NEKPren ehuneko 100eko zuzeneko partaidetza dute bere kapitalean, salbu eta SODENA berria, zeinaren zuzeneko partaidetza ehuneko 98,06 baita.

## II.2. SOZIETATE PUBLIKOEN ESKU UTZITAKO MANDATUAK

Mandatuak nahitaez bete beharreko enkarguak dira. Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beren entitate instrumentalei mandatuak egiten dizkiete, xede publikoak betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren obra, hornidura, laguntza eta kontzesioak gauzatzeko.

Entitate instrumental berekiak dira berezko nortasun juridikoa duten eta baldintza hauek betetzen dituzten entitateak:

• Bere kabuz erabakitzeko ahalmenik ez izatea, entitate mandatu-egileak kontrolatzen duelako, bere zerbitzu edo unitateak kontrolatzen dituen antzera.

• Jarduera gehiena entitate mandatu-egilearentzat egitea.

Nafarroako Gobernuaren 2008ko apirilaren 14ko Erabakian, Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek entitate instrumentalei egiten dizkieten mandatuen espedienteen edukia arautu zen eta mandatuok kontrolatzeko araubidea ezarri zen.

Ezarri zen, besteak beste, enkargatutako prestazioa burutzearen benetako kostuen arabera zehaztuko zirela mandatuen prezioak, eta ekoitzitako unitateei aplikatuko zitzaizkiela. Horretarako, entitate instrumentaltzat onartutako entitateren bat atxikia duten departamentuek baldintza ekonomikoen agiria onetsi ahal izanen dute, mandatuei aplikatzeko. Osagai hauek izanen ditu, gutxienez:

• Prezioen taula, non jasoko baitira entitate instrumentalak egin beharreko ereduzko prestazioen zerrenda, neurketa-unitatea eta mandatua burutzearen unitateko kostua.

• Ereduzko prestazioei kostuak egozteko eredua, kostuen kontzeptuekin eta kostuak prestazioei egozteko irizpideekin.

## II.3. ARAUBIDE JURIDIKOA

Sozietate publikoei antolamendu juridiko pribatua aplikatzen zaie, ezertan galarazi gabe aurrekontuei, kontabilitateari, ondareari, finantzen kontrolari eta kontratuei buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarririko berezitasunak.

Honakoak dira, besteak beste, sozietate publikoei 2011. urtean aplikatzekoak zaizkien arauak:

• Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.

• Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, Nafarroako ondareari buruzkoa.

• Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

• Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.

Lege horren arabera, Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beren entitate instrumentalei obra, hornidura edo laguntza kontratuetako ohiko prestazioen mandatuak egiten dizkietenean, mandatu horiek ez dira Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen pean egonen.

Mandatua bete ahal izateko entitate instrumentalak hirugarrenei prestazioak eskatu behar dizkien kasuetan, berriz, prestazioen esleipenean Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko arauak beteko dira. Ondorio horietarako, ez dira hirugarrentzat joko entitate mandatu-egilearen gainerako entitate instrumentalak.

• Martxoaren 26ko 27/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko entitate instrumentalentzako mandatuak arautzen dituena.

• 2008ko apirilaren 14ko Erabakia, Nafarroako Gobernuak hartua, Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek entitate instrumentalei egiten dizkieten

mandatuen espedienteen edukia arautu eta mandatuok kontrolatzeko araubidea ezartzen duena.

• Apirilaren 3ko 4/2007 Legea, administrazio publikoen eta enpresa publikoen arteko finantza-harremanei eta zenbait enpresaren finantza-gardentasunari buruzkoa.

• Ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

• Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena, eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretua, Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.

• Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.

## III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauek dira:

• Sozietate publikoei 2011. urtean egindako mandatuen zenbatekoa aztertzea.

• Sozietate publikoentzako mandatuen prezioak finkatzeko sistema berrikustea, enkargatutako lanak onetsitako prezioan fakturatu diren begiratzea, eta onetsitako aurreikuspenen aldean mandatuetan gertatu diren desbideratzeak aztertzea.

• Sozietate publikoek, hirugarrenekin kontratatzen dituzten prestazioetan, kontratuei buruzko legedia betetzen duten begiratzea.

Lanaren norainokoari dagokionez, bat-egitea baino lehenagoko enpresa publikoetan prezioak finkatzeko erabilitako prozedurak berrikusi dira, eta 2011. urtean Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek enpresa horiei egindako mandatuetan prezio horiek nola aplikatu ziren aztertu da. Ildo horretan, sozietateen finantza-egoera eta kostu-egitura aztertu dira, eta mandatuen prezioak sozietate publikoaren kostuen arabera ezarri ziren begiratu da.

Enpresa publiko berriek 2012ko ekitaldirako adostu zituzten prezioak ere aztertu dira. Ez dira azterketa horretan berrikusi ekitaldi horretako prezioak finkatzeko sistemak.

Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek 2011. urtean sozietate publikoei egindako mandatuak ezagutze aldera, argibideak eskatu zaizkie Nafarroako Gobernuko departamentuei, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei. Kontratazioari buruzko atarian ere begiratu da, argitaratutako mandatuen berri jakiteko.

2011. urtean, enpresen bat-egitea baino lehenago zeuden 38 sozietate publikoetatik 19k 206 mandatu jaso zituzten, guztira 53.419.412 eurokoak. Bat-egitea baino lehenagoko 19 sozietateetatik 15etan, 45 mandatuz osatutako lagina aztertu da, 29.545.206 eurokoa guztira, hau da, mandatuen guztizko zenbatekoaren ehuneko 55,31 egiten duena. Laginaren xehetasunak eta horien azterketa txosten honen V. atalean jaso dira.

Bai kasuan kasuko sozietate publikoan bai Foru Administrazioko departamentu edo erakunde autonomo mandatu-egilean egin da berrikuspena.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz.

## IV. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Idazpuru honetan laburbildurik aurkezten dira fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak eta egindako lanaren araberako aholkuak.

### IV.1. MANDATUAK 2011n

Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sozietate publikoek 2011. urtean 206 mandatu jaso zituzten, eta horien zenbateko aurreikusia, guztira, 53.419.412 euro izan zen (BEZik gabe). Ondoko taulan, 2011. urtean hasitako bat-egite prozesuaren ondorioz sortutako sozietate bakoitzak jasotako mandatuen kopurua eta zenbatekoa ageri dira; izan ere, bat egindako sozietateen eragiketak sozietate berriaren kontura egindakotzat jotzen dira:

| | | | | | Aztertutako lagina | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sozietate publikoa | Kop. | Ehunekoa, guztizkoaren gainean | Aurrekontua, BEZik gabe | Ehunekoa, guztizkoaren gainean | Kop. | Aurrekontua, BEZik gabe |
| Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA) | 70 | % 34 | 15.690.585 | % 29 | 11 | 6.916.520 |
| Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC) | 30 | % 14,5 | 13.071.901 | % 24 | 9 | 10.623.029 |
| Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN) | 52 | % 25 | 10.031.756 | % 19 | 8 | 3.941.502 |
| Instituto Navarro de Tecnologías e Infraest. Agroalimentarias, S.A. (INTIA) | 24 | % 12 | 7.591.540 | % 14 | 7 | 5.667.889 |
| Navarra Deporte y Ocio, S.L. (NDO) | 1 | % 0,5 | 2.916.542 | % 5 | | |
| Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA) | 15 | % 7 | 1.586.298 | % 3 | 6 | 1.053.885 |
| Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. (CEIN) | 5 | % 2,5 | 1.453.100 | % 2,5 | 4 | 1.342.381 |
| Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI) | 7 | % 3,5 | 989.218 | % 2 | | |
| Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A. (ANL) | 1 | % 0,5 | 49.554 | % 1 | | |
| Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. (SODENA) | 1 | % 0,5 | 38.918 | % 0,5 | | |
| Mandatuak, guztira | 206 | % 100 | 53.419.412 | % 100 | 45 | 29.545.206 |

Mandatuen guztizko zenbatekoaren ehuneko 86 lau sozietate publiko hauei dagokie: TRACASAri ehuneko 29, Navarra de Servicios y Tecnologíari ehuneko 24, Gestión Ambiental de Navarrari ehuneko 19 eta Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias enpresari ehuneko 14.

Sozietateen negozio-zifrari erreparatuta, 2011n mandatuen bidezko diru-sarrerak negozio-zifraren ehuneko 89,5 izan ziren NASERTIC enpresa publikoan, ehuneko 79 GANen, ehuneko 71 TRACASAn, ehuneko 59 INTIA sozietatean, ehuneko 57 CEINen eta ehuneko bat besterik ez NASUVINSAn.

• Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek sozietate publikoei mandatuak egiteko argudiatzen duten arrazoi nagusia da ez dutela lanak beren kabuz egiteko baliabide material eta langile nahikorik. Argudio generikoa da, ordea, eta ez dago inon jasorik gabezia hori frogatzen denik, mandatua Administrazioko langileekin burutu ahal izateko edo Administrazioak berak lanak kontratatzeko beharko liratekeen baliabideen kostuaren ebaluazioaren bitartez.

Horren harira egiaztatu da berrikusitako 45 mandatuetatik erdietan baino gehiagotan prestazioak enkargatu zitzaizkion enpresa publikoak ere ez zuela baliabide nahikorik eta hirugarrenekin kontratatu zuela enkarguaren zenbateko osoaren portzentaje adierazgarri bat. Halakoetan sozietate publikoak lizitazio-prozedura izapidetzen zuen, eta kontrataturiko prestazioen koordinazioaz eta jarraipenaz arduratzen zen.

• Egonkortasun helburua bete beharra dela-eta Administrazioak onetsitako aurrekontu-murrizketek berekin ekarri dute mandatu gutxiago egitea, eta zenbateko txikiagokoak. Zenbait kasutan Administrazioak berak bete ditu lehenago enpresa publikoei enkargatzen zizkien prestazioak.

## IV.2. MANDATUEN PREZIOAK

• Oro har, departamentu guztiek zituzten onetsiak mandatuak arautzeko baldintza ekonomikoen agiria eta sozietate publikoen esku utzitako prestazioei aplikatu beharreko tarifa unitarioak, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, ANAIN enpresa publikoarentzat, eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak, NAMAINSArentzat.

Urte anitzetako agirien onespena dela medio, aurreko ekitaldietan onetsitako prezioak aplikatu dira 2011n, urtero KPIaren arabera eguneratuak, enpresaren urtean urteko kostu-egitura kontuan hartu gabe.

Baina 2011n aplikatutako lan-eskuaren orduko prezioa aurreko ekitaldikoa bera izan zen, salbu eta TRACASAn eta NASERSAn, sozietate horiek hurrenez hurren ehuneko 2,3 eta 2,2 igo baitzuten 2010eko prezioa, eta NASUINSAn, horrek ehuneko 2,55 beheratu baitzituen 2010eko prezioak.

• Mandatuaren aurrekontuan, arau orokor gisa, mandatua burutzeko egin behar diren prestazioen xehetasunak jasotzen dira, obra-unitateka, eta unitateko prezioa ematen da, bai eta, horretatik bereiz eta banan-banan, sozietateak hirugarrenekin kontratatuko dituen prestazioen balorazioak ere.

• Mandatuen prezioek kontzeptu hauek biltzen dituzte, oro har:

a) Lan-eskuaren zuzeneko kostua.

b) Zeharkako kostuak: bai kudeatzailetza eta administrazioko lan-eskuarena, bai bestelako ustiapen-gastuak.

c) Kanpoko kontratazioen ondoriozko gastuak.

d) Bestelako ustiapen-gastuak, zuzenean mandatuari egotzi ahal zaizkionak.

Oro har, mandatuaren prezioa kalkulatzeko kontuan hartutako kostu guztiak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, identifikatuta eta kontabilitatean jasota daude. Zuzeneko kostuak egozteko erabili diren metodoek ongi erakusten dute zein kostu sortu zaizkion enpresari, enkargatu dizkioten jarduerak egiteko; eta zeharkako kostuetatik ehuneko zenbat egotzi behar den zehazteko sistemak egiaztagarriak eta objektiboak dira.

Lan-eskuaren orduko kostu zuzena, eskuarki, lanbide-kategoria bakoitzeko batez besteko soldatetan oinarrituta zehazten da, eta mandatua burutzeko lanean jarritako langileen dedikazioaren arabera egozten da. Urtean 1.592 orduko dedikazioa hartu da, urteko benetako lanorduak kontuan hartu dituzten zenbait enpresatan izan ezik.

Zeharkako kostuak –hala langileen kostuak nola gastu orokorrak– direla eta, mandatuari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastuak hartzen dira kontuan, tartean: kudeaketa eta administrazioko langileen ordainsariak, kanpoko zerbitzuen gastuak (besteak beste, administrazio kontseiluaren dietak) eta ibilgetuaren amortizazioa, batik bat. Enpresa publiko batzuetan, kudeaketa eta administrazio arloko langileen gastuak zuzeneko gastutzat hartu dira. Halaber, zenbait enpresak deskontatu egin dituzte ustiapen-gastuetarako diru-laguntzak eta ibilgetu materiala finantzatzeko jasotakoak.

Zeharkako kostuetatik zenbateko portzentajea egotzi behar den kalkulatzeko, zeharkako kostuak zuzeneko langile-kostuez zatitzen dira. Enpresaren kostu-egitura ezberdinek eta kontuan hartutako ustiapen-gastuek azaltzen dute zergatik dagoen aldea sozietate publikoek zeharkako kostuak egozteko aplikatzen dituzten ehunekoen artean.

Enpresa publikoek, oro har, kostu-zentroen araberako kontabilitatea ezarri dute, egiten dituzten prestazioei kostuak egoztea ahalbidetzen diena.

Ezin izan dugu egiaztatu prezioak –bai zuzeneko kostuak zein zeharkakoak– finkatzeko mekanismoa, TRACASA enpresan.

ANAIN eta OPNATEL sozietateetan, ezin izan dugu egiaztatu zein gastu orokor hartzen diren kontuan zeharkako kostuen egozte-portzentajea kalkulatzeko.

• Fakturazioari dagokionez, oro har, enpresa guztiek fakturatzen dituzte aurreikusitako unitate guztiak, onetsitako prezioetan. Ikusi dugu nola kasu batzuetan osorik konpentsatu diren burutu gabeko unitateak, hainbat preziotakoak, aurreikusitakoez gain egindako unitateekin; horrenbestez, aurrekontuan ezarritako zenbatekoa fakturatu da mandatuarengatik.

Hala ere, enpresa publikoek eskuarki justifikatu egiten dituzte burututako unitateen desbideratze horiek, Administrazioak onetsi egiten ditu, eta egindako prestazioak justifikaturik egoten dira fakturetan.

Obrak egiteko mandatuetan, sozietate publikoak hirugarrenekin kontratua egiten duenean lizitazioaren prezioa baino prezio txikiagoan, mandatuaren aurrekontua murriztu egiten da eta obraren adjudikazio-prezioari egokitzen zaio.

• Enpresa guztiek, TRACASA, OPNATEL eta PINek izan ezik, adjudikazio-prezioaren edo obra-ziurtagirien arabera fakturatu zizkioten Administrazioari kanpoko kontratazioen gastuak, gastu orokorrik egotzi gabe. Hiru enpresa horiek, berriz, gastu orokorrak direla-eta portzentaje hauek aplikatu zizkieten hirugarrenekiko kontratuei:

a) TRACASAk: ehuneko 20,5 (gastu orokorren 17,5 gehi I+G+B gastuen ehuneko hiru), zenbateko garrantzitsua duten kontratuetan salbu, horrelakoetan ehuneko 4,5 aplikatzen baitu (1,5 gehi I+G+B gastuen ehuneko hiru).

b) OPNATELek: ehuneko 5,15 eta 16,30 bitarte.

c) PINek: ehuneko 15, salbu eta mandatuaren ehuneko 50 baino gehiago kontratatzen duenean, orduan ehuneko hiru aplikatzen baitu.

• Mandatuengatik fakturatutako prezioak sozietate publikoen kostuak kontuan hartuz ezarri dira. Enpresa publikoek prozedura irekiaren bidez hirugarrenekin kontratatzen dituzten zerbitzu eta obren kasuan izan ezik, ezin dugu esan prezio horiek merkatukoak ote diren.

• Mandatuak diru-sarreren iturri oparoak izan dira enpresa publikoentzat, eta ezarritako prezioek bide eman dute, oro har, mandatuek berek enpresaren negozio-zifran egiten dutena baino portzentaje handiagoa berreskura dadin ekoizpen-kostuetatik, batez ere 2008-2010 bitarteko urteetan, ez ordea 2011n. Egiaztatu da GEDESAn soberakin garrantzitsuak sortu direla. Enpresa horren jarduera bakarra Administrazioaren mandatu bat burutzea izan da.

Krisialdi ekonomiko honetan onetsitako aurrekontu-murrizketen ondorioz, ordea, enpresa publikoek jasotzen dituzten mandatuak urritu egin dira eta haien negozio-zifrak behera egin du. Horrekin batera, jasan behar dituzten langileria-, hornidura- eta ustiapen-gastu egiturazkoak finantzatzeko zailtasuna ere agertu zaie; kostu horiek sortu ziren garaian, enpresen jarduera Administraziotik jasotzen zituzten mandatuen mende zegoen neurri handian.

## IV.3. HIRUGARRENEKIN KONTRATATURIKO MANDATUAK

• Aztertu diren mandatuak 45 dira, guztira 29.545.206 eurokoak, eta haietatik 23tan enpresa publikoek hirugarrenekin kontratatu zituzten beren esku utzitako lanen ehuneko 50 baino gehiago. Kontratazio horiek 16.933.990 euro egin zuten.

Administrazioak, prestazioak kontratatu ordez, baliabide nahikorik ez duen enpresa publiko bati mandatu bidez enkargatze horrek enkarguaren garestitzea ekar dezake, eta, beraz, mandatua burutzeko prestazioaren eraginkortasuna murriztu.

Sozietate publikoei enkarguak egiteko arau-esparru berria onetsi zen 2013an. Hala, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legeak dioenez, ente instrumentalek baliabide egokiak eduki behar dituzte enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat exekutatzeko, eta esleitzen dituzten kontratazioek ezin izanen dute enkarguaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu; salbuespenezko arrazoi justuak daudenean, portzentaje hori gainditu ahal izanen da, ekonomia, eragimena eta eraginkortasuna hobetzearren.

• Oro har, sozietate publikoek Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeari jarraituz egin dituzte hirugarrenekiko kontratuak, TRACASA sozietate publikoak izan ezik, horrek antzeko xede soziala zuen beste sozietate bati zuzenean enkargatu baitzion mandatu bidez bete behar zituen prestazioen exekuzioa, beste sozietate horretan ehuneko 50eko partaidetza izanik. TRACASAk enpresa horrekin 1.727.095 euroko eragiketak egin zituen 2011n.

• 2011ko ekitaldian onetsitako aurrekontu-murrizketek eragina izan zuten enpresa publikoek mandatua burutzeko adjudikatuak zituzten kontratuetan: jada kontratatuterik zeuden prestazio batzuk murriztu edo kendu egin ziren. Aldaketa horiek ez zuten gainditu adjudikazio-prezioaren ehuneko 20, eta kontratistek nahitaez onartu behar izan zituzten, kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik gabe.

Gure aholkuak:

*• Administrazioak frogatu egin behar du beharrezkoa dela prestazioak enpresa publikoen esku uztea eta berak ez duela baliabide nahikorik prestazioak bere kasa burutzeko edo kanpoko kontratazioaren xede izanen diren lanak egiteko. Prestazioa burutzeko aukera guztiak ebaluatu behar ditu.*

*Ildo horretan, kostuei buruzko datuak eskuratzeko prozedura egokiak ezarri behar ditu eta datuok erkatu behar ditu sozietate publikoek fakturatzen dituzten prezioekin eta merkatuko kanpo-informazioarekin, zerbitzuen prezioen gaineko erabaki eraginkorrak hartze aldera.*

*• Mandatuen prezioak zehazteko irizpide homogeneoak onestea; esaterako, zeharkako langile-gastuak eta beste gastu orokor batzuk egozteare ingurukoak, edota enpresa publikoek hirugarrenekin egiten dituzten kontratuetan gastu horiek aplikatu behar diren ala ez.*

*• Kontratazioari buruzko legedia betetzea kontratu bat hirugarrenei adjudikatzen zaien kasu guztietan, besteak beste, adjudikatzaileak partaidetza duenean kontratatuterik enpresan.*

*• Enpresa publiko batek jasotako enkarguaren ehuneko 50 baino gehiago hirugarrenekin kontratatzen duenean, enpresa publikoek beren baliabideekin ezin bete ditzaketen prestazioak hirugarrenei enkargatzearen ekonomia, eragimena edota eraginkortasuna justifikatzea.*

## V. SOZIETATE PUBLIKOEN ESKU UTZITAKO MANDATUAK

Atal honetan sakonago eta zehatzago azalduko dira sozietate publikoek 2011n Foru Komunitateko Administraziotik eta haren erakunde autonomoetatik jaso zituzten mandatuen lagin baten fiskalizaziotik atera diren ondorioak.

Atal bakoitzaren sarreran, bat-egitearen ondorengo sozietate berrien kasuan, aditzera ematen dira sozietatearen xedea, 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoera, sozietatearen urteko kontuetatik jasoa, eta mandatuen prezioei buruz 2012rako hartutako erabakiak. Sozietate berriei buruzko azpiatal bakoitzean, bat-egitea baino lehenagoko sozietateetako bakoitzarentzat, prezioaren zehaztapena eta berrikusitako mandatuak aztertzen dira.

### V.1. TRABAJOS CATASTRALES, S.A.

Trabajos Catastrales, S.A. sozietate publikoa bat-egite baten emaitza da, TRACASA sozietateak GEDESA (Gestión de deudas, S.A) xurgatzean sortua, hain zuzen ere.

TRACASA sozietatearen xedean jarduera nagusi hauek biltzen dira:

• Ondasunen inbentario eta erregistroak egin eta kudeatzea, kartografia, desjabetze eta lurzatitze lanak, laguntzen, errolden eta zergen kudeaketarako laguntza teknikoa, eta txosten teknikoak egitea.

• Tributuen kudeaketarekin, bilketarekin eta ikerketarekin zerikusia duten zerbitzuak egitea, jakinarazpenak egitea eta zorrak erreklamatzea.

• Informazio sistemetarako zerbitzuak, laguntza teknikoa edo teknologikoa.

• Informatikako tresna, programa eta tekniken hornidura.

TRACASAk partaidetza du hiru enpresa hauen kapitalean:

| Enpresa | Sozietatearen xedea | Partaidetza |
|---|---|---|
| Tasaciones y Consultoría S.A. | Ondasunen tasazioa eta balorazioa | % 50 |
| TCA Cartografía y Geomática S.A. | TRACASArenaren antzekoa | % 50 |
| CICNA S.L. (Comunicación e información al ciudadano) | Pertsona eta entitateei arreta eta informazioa ematea, informazioa bildu eta lantzea, eta informatika- eta komunikazio-sistemak garatu eta merkaturatzea | % 50 TRACASAk<br>% 50 TRACASAko 30 langilek |

Hona hemen TRACASA sozietatearen 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren inguruko datu batzuk, eurotan:

| | Zenbatekoa |
|---|---|
| Negozio-zifra | 21.439.959 |
| Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak ustiapenerako | 374.848 |
| Hornidurak | 7.541.483 |
| Langile-gastuak | 12.485.270 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 3.001.148 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 1.897.607 |
| Ustiapeneko emaitza | -2.113.172 |
| Emaitza finantzarioa | 144.259 |
| Zerga aurreko emaitzak | -1.968.913 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak 2011n TRACASAren negozio-zifraren ehuneko 71 izan ziren. Diru-sarrera horien bidez finantzatu ahal izan zen enpresaren ustiapen-gastuen ehuneko 61.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua erkatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | 2010/12/31 | | | 2011/12/31 |
|---|---|---|---|---|
| | GEDESA | TRACASA | Guztira | TRACASA |
| Zuzendaritzakoak | 1 | 7 | 8 | 7 |
| Erdi mailako arduradunak | 3 | 34 | 37 | 38 |
| Teknikariak | 2 | 228 | 230 | 254 |
| Administrariak | 17 | 14 | 31 | 16 |
| Kualifikazio gabeko langileak | | 9 | 9 | 2 |
| **Langileak, guztira** | **23** | **292** | **315** | **317** |
| **Kostu osoa (soldatak eta gizarte-zamak)** | **867.984** | **12.638.589** | **13.506.573** | **12.485.270** |
| Langileen batez besteko kostua | 37.738 | 43.283 | 42.878 | 39.386 |

TRACASA, S.A.U.n bat egindako sozietateek 2011n 70 mandatu jaso zituzten, guztira 15.690.585 eurokoak (BEZik gabe). Guztizko zenbateko horretatik 6.916.520 euro egiten duten 11 mandaturen lagina aztertu da:

| Departamentua/Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua (BEZik gabe) | Hirugarrenei kontrataturiko % 50etik gorako portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | TRACASA | Informazio sistemak SAP 2011 ingurunean | 1.870.193 | 72 |
| | | SAP 2011 prestakuntza modulua | 122.735 | 75 |
| HTN | TRACASA | Zerga kanpainako grabazioa | 1.725.992 | 63 |
| | GEDESA | Tributuen bilketa kudeatzea | 1.042.457 | |
| Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena | TRACASA | NBEF eta LGENF laguntzak kudeatzea | 1.080.383 | |
| | | Lanak, Abere Ekoizpenaren Atalean | 328.673 | |
| | | Estat. lanak. Abeltzaintzako prezio eta estatistikak | 134.389 | |
| | | Lag. tekn., Nek. Ustiategiak Sustatzeko Atalean | 58.287 | |
| O-NOZ | | O-NOZeko OIS proiektua kudeatzea | 229.141 | |
| Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria | | KIGaren kudeaketa tekniko administratiboa | 199.097 | 100 |
| Sustapena eta Etxebizitza | | Ondasunak desjabetzea. Nafarroa Plana 2012 | 125.173 | 87 |
| | | **Lagineko mandatuak, guztira** | **6.916.520** | |
| | | TRACASArentzako mandatuak, guztira | 15.690.585 | |

Trabajos Catastrales S.A. sozietate berriak 2012rako onetsi zituen esku-lanaren prezioak ehuneko hiru handiagoak ziren TRACASAk eta GEDESAk 2011n aplikatutakoak baino.

### V.1.1. TRACASA

**TRACASAri egindako mandatuen prezioak**

Maiatzaren 12ko 102/2008 Foru Aginduaren bidez onetsi zen TRACASArentzako mandatuak arautzen dituzten baldintza ekonomikoen agiria.

TRACASAren 2010eko negozio-zifraren ehuneko 71 Nafarroako Gobernuaren mandatuei zegokien.

TRACASArentzako mandatuen prezioa ekoizpen-kostuek eta zeharkako kostuek osatzen dute.

Ekoizpen-kostuak osagai hauek ditu:

• Langile-gastuak: erreferentziako soldata, helburuak eta enpresaren kargurako gizarte segurantza (soldata gordinaren ehuneko 31,55).

• Gastu estandarrak: 1,08 euro orduko, lanbide-profil guztietarako.

• Ekoizpen-gastu orokorrak: langile-gastuen eta gastu estandarren arteko baturaren ehuneko 9,34.

Ekoizpen-kostuari zeharkako kostu hauek gehitzen zaizkio:

• Gastu orokorren ehuneko 17,5

• I+G+B gastuen ehuneko hiru

Martxoaren 7ko 31/2011 Foru Aginduaren bidez 2011rako tarifak onetsi ziren, tartean 74 lanbide-profiletarako orduko prezioak, eta gastu orokorrengatik egotzitako portzentajea ehuneko 15etik 17,5era igo zen.

TRACASAk 2011n aplikatu zituen tarifak 2009koak ziren, ehuneko 0,3 gehituta 2010erako eta ehuneko 2,3 gehituta 2010etik 2011ra.

TRACASAk kalkulatu zuen orduko kostua aztertu dugu, berrikusitako mandatuetan ohikoenetakoak diren bi lanbide-profil aukeratuta: Lurraldeko teknikari espezialista, 4. mailakoa, eta Softwareko ingeniaria, 3. mailakoa. Hurrengo taulan ageri da horien orduko kostua:

| Kontzeptua | Lurraldeko teknikari espezialista, 4. mailakoa | Softwareko ingeniaria, 3. mailakoa |
|---|---|---|
| Soldatak eta ordainsariak | 28.018 | 43.568 |
| Gizarte segurantza, % 31,55 | 8.840 | 13.746 |
| Langileria-gastuak, guztira | 36.858 | 57.314 |
| Gastu estandarrak (euroak orduko) | 1,08 | 1,08 |
| Gastu estandarrak, guztira | 1.713 | 1.713 |
| Ekoizpen-gastu orokorrak, % 9,34 | 3.603 | 5.513 |
| Ekoizpen-kostua, guztira | 42.174 | 64.540 |
| Orduak | 1.592 | 1.592 |
| Ekoizpen-orduaren zuzeneko kostua (2009) | 26,49 | 40,54 |
| Ekoizpen-orduaren zuzeneko kostua (2010) | 26,57 | 40,66 |
| Ekoizpen-orduaren zuzeneko kostua (2011) | 27,18 | 41,60 |
| Gastu orokorrak, % 17,5 | 4,76 | 7,28 |
| I+G+B, % 3 | 0,82 | 1,25 |
| Orduko kostua, guztira, 2011n | 32,75 | 50,13 |

Ezin izan dugu jakin zein soldata hartzen den erreferentziatzat aztertutako lanbide-profilerako, ezta nola zehaztu ziren ekoizpen-gastu orokorren ehuneko 9,34ko portzentajea eta gastu estandarrengatiko orduko 1,08 euroko zenbatekoa ere.

Gastu orokorren ehuneko 17,5a zehazteko, konparatu egin ziren, alde batetik, kudeaketa gastuak, administraziokoak, merkataritzakoak, giza baliabideetakoak, zerbitzu orokorretakoak eta proiektu eta gastu komertzialei egotzi gabekoak, eta bestetik, 2009an jasotako mandatuetan eta 2010erako aurreikusitakoetan Administrazioari gastu orokorrengatik fakturatutako zenbatekoa.

Ehuneko hiruari dagokionez, TRACASAk justifikatu egin du bere I+G+B gastuak 2011n handiagoak izan direla Foru Administrazioak kontzeptu horrengatik ordaindu dion diru kopurua baino, baina ez du justifikatu nola zehaztu den portzentaje hori.

TRACASAk hirugarrenekin kontratatzen dituen zerbitzuak ehuneko 20,5 gehituta fakturatzen dizkio Administrazioari (gastu orokorren ehuneko 17,5 eta I+G+B gastuen ehuneko hiru gehituta), salbu eta kontratazioaren zenbatekoa adierazgarria denean; halakoetan ehuneko 1,5 egozten du, ehuneko 17,5aren ordez, gastu orokorrengatik.

**Berrikusi diren TRACASArentzako mandatuak**

- “Informazio sistemak SAP ingurunean”

2011rako hasierako aurrekontua 2.135.589 eurokoa izan zen (BEZik gabe). Aurrekontu hori ehuneko 12 beheratu zen 2011ko laugarren hiruhilekorako, 265.396 euro kenduz, Gobernuak defizita murrizteko onetsi zituen neurrien ondorioz.

TRACASAk 1.863.804 euro fakturatu zizkion Administrazioari (BEZik gabe). Fakturazioan, enpresa publikoak 8.300 euro deskontatu zituen, eta zeharkako kostuen portzentajea, kanpoko kontratazioaren gastuaren gainean aplikatutakoa, ehuneko 1,5ekoa izan zen, ehuneko 17,5ekoaren ordez.

Kanpoko kontratazioak 2011. urtean mandatuaren ehuneko 72 egin zuen.

Kanpoko enpresarekiko kontratua 2010. urtean adjudikatu zen, prozedura irekiaren bidez, Europar Batasunean publizitatea eginda, 5.282.626 euroko prezioan (BEZik gabe), 2010-2012 aldirako. Bitarte horretarako mandatuaren kasuan, kontratazioaren xede izanen ziren prestazioak zehaztu ziren, eta haien zenbatekoa ere bai, guztira 4.545.673 euro. Hala ere, 5.560.659 euroko lizitazio-prezioa ezarri zen, mandaturako onetsitako kontratazioen aurrekontua baino handiagoa.

2011ko azaroan, Nafarroako Gobernuak defizita txikiagotzeko onetsi zituen neurrien ondorioz, enpresa adjudikazio-hartzailearekin kontratu berria sinatu zen. Hartan murriztu egin ziren 2010eko martxoan sinatutako hasierako kontratuaren norainokoa eta prezioa.

Halaber, TRACASAri eginkizunetako batzuk kendu zitzaizkion, departamentu mandatuegilearen langileek beren gain hartu zituzten eginkizun horiek, eta mandatuari atxikitako langileen kopurua murriztu zen. Guztira, mandatu horretarako 2010-2012 aldirako onetsita zegoen aurrekontutik 1.237.794 euro kendu ziren.

• “Zerga kanpainako grabazioa”

Hasierako aurrekontua 2.064.988 eurokoa zen (BEZik gabe), eta ehuneko 16 beheratu zen, 1.725.992 euroraino. TRACASAk Administrazioari 1.626.759 euro fakturatu zizkion (BEZik gabe), hau da, aurrekontuan ezarritakoa baino 99.246 euro gutxiago.

Mandatu hori betetzeko, TRACASAk CICNAri zuzenean kontratatu zizkion enkargatutako zerbitzuen ehuneko 63, hain zuzen ere grabazio zerbitzuak, jendearentzako arreta eta telefono bidezko laguntza zerbitzuak, 1.027.173 euroko prezioan (BEZik gabe).

TRACASAk CICNAri langileengatik ordaintzen dizkion orduko prezioak TRACASAren 2011ko zuzeneko ekoizpen-kostuari ehuneko 20,5 gehituta zehaztu dira. Hau da, CICNA enpresari ordaindutako prezioak barruan hartzen ditu TRACASAren kostu guztiak, bai ekoizpenkostuak bai gastu orokorrengatiko eta I+G+B arloko zeharkako kostuak, eta TRACASAk kostu horiek fakturatzen dizkio Administrazioari.

TRACASAk CICNA enpresarekin kontratatzen dituen prestazioak ez dira bereiz eta banaka baloratzen mandatuaren aurrekontuan.

• “NBEF eta LGENF laguntzak kudeatzea”

Onetsitako aurrekontua 1.080.360 eurokoa izan zen (BEZik gabe), eta TRACASAk zenbateko horixe fakturatu zion Administrazioari. Mandatu horretako lanak dira, besteak beste, espedienteak jaso, balidatu eta kontrolatzea, datu-baseak mantentzea, kontrol administratiboak eta tokian tokikoak egitea, eta laguntzen eskatzaile eta onuradunei arreta ematea.

Mandatua burutu zuen taldean 17 teknikari, bi administrari laguntzaile eta lanaldi partzialeko koordinatzaile bat aritu ziren. Mandatua betetzeko, TRACASAko teknikariek Landa Garapeneko Departamentuan lan egiten dute, Departamentuaren egitura administratibo eta funtzionalaren mendean.

• “Lan administratiboak, teknikoak eta informatikoak Abere Ekoizpenaren Atalean”

Mandatu horren aurrekontua, 2011. urterako, 328.673 euro izan zen (BEZik gabe), eta horixe fakturatu zitzaion Administrazioari. Kudeaketa-koordinatzaile batek, lau teknikarik, administrari laguntzaile batek eta, lanaldi partzialarekin, proiektuko koordinatzaile batek osatu zuten mandatu hori burutzeko lantaldea. TRACASAko teknikariek Landa Garapeneko Departamentuan lan egiten dute beti.

• “Kontsumitzaileentzako Informazio Gunerako (KIG) laguntza tekniko eta administratiboa”

TRACASAk zuzenean CICNAri kontratatu zion mandatu osoaren gauzatzea, hots, 199.072 euroko (BEZik gabe) zenbatekoa zuten prestazioak. Prezioak kalkulatzeko kontuan hartu ziren TRACASAren 2011ko guztizko kostuak, bai ekoizpenekoak bai zeharkakoak.

Mandatuaren aurrekontuan ez da adierazten TRACASAk hirugarrenei kontratatuko dizkienik berari enkargatutako prestazioak.

• “Abiadura handiko trenbideko Cadreita-Alesbes tarteko obrek ukitzen dituzten ondasun eta eskubideak desjabetzeko prozesurako aholkularitza eta laguntza”

Onetsi zenean 125.173 euroko aurrekontua ezarri zen (BEZik gabe). TRACASAk aurreikusita zegoen zenbatekoa fakturatu zion Administrazioari.

TRACASAk hirugarrenekin kontratatu zituen enkargatutako lanen ehuneko 87. Kontratua 90.226 euroko prezioan adjudikatu zen, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

Hiru enpresa gonbidatu ziren. TRACASAren ehuneko 50eko partaidetza duen Tasaciones y Consultoría enpresak jaso zuen adjudikazioa. Ezarri ziren lizitazio-prezioak ehuneko bederatzi handiagoak ziren mandatuaren aurrekontuan hirugarrenekiko kontrataziorako onetsitakoak baino.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak eskaini zituen prezioak, hala ere, mandatuaren aurrekontuan onetsitako tarifetakoak ziren. Mandatuaren aurrekontua onetsi eta handik lau egunera egin zen eskaintzen balorazioari buruzko txostena.

### V.1.2. GEDESA

#### GEDESAri egindako mandatuaren prezioak

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emandako apirilaren 19ko 324/2011 Ebazpenaren bidez, 2011ko ekitaldirako administrazio-klausulen, baldintza teknikoen eta prezioen agiria onetsi zen.

Honako mandatu hau betetzea da GEDESA enpresaren jarduera bakarra: diru-sarrera publikoen bilketa kudeatzea Nafarroako Zerga Ogasunarentzat.

Mandatuak 2011rako 1.042.457 euroko aurrekontua izan zuen (BEZik gabe).

GEDESAk lan-eskuaren prezio hauek ezarri zituen 2011rako: kudeaketa arlokoa 41,96 euro orduko, eta administraziokoa 30,24 euro orduko (bi kasuetan BEZik gabe). Prezio horiek enpresaren kostu guztiak biltzen dituzte, bai langile-kostuak (zuzenekoak nahiz zeharkakoak), baita bestelako ustiapen-gastuak ere.

Ordu bakoitzeko langile-kostua kalkulatzeko, kudeaketa eta administrazio arloetako langileentzat aurreikusitako benetako lanorduen kopurua hartu zen kontuan.

Informatikako langileen gastuak eta zuzendaritza gastuak zeharkako esku-lantzat jotzen dira, eta kudeaketa eta administrazio zerbitzuen artean banatzen dira.

Kostu orokorren artean daude GEDESAk zuzenean Administrazioari fakturatzen dizkion gastuak, esaterako 10.000 euroko kilometrajea (0,32 euro kilometroko) eta erregistroen gastuak.

2011rako guztizko langile-kostua zenbatesteko, langileek 2010ean izandako ordainsariei eta gizarte segurantzari ehuneko 1,5 gehitu zitzaien, KPIaren igoerarengatik, eta kontuan hartu ziren defizit publikoa murrizteko neurri berezien planaren ondoriozko murrizketak.

Egotzitako kostu guztiak, hala langileen kostuak nola kostu orokorrak, kontabilitatean identifikaturik daude.

Bat-egitearen ondoren, 2011n, GEDESAren prezioak zirela eta, erabaki zen TRACASAren sistema bera erabiltzea prezio horiek Gobernuari fakturatzeko, alegia, gastu orokorren ehuneko 17,5 eta I+G+B gastuen ehuneko 3 aplikatzea lanbide-profil bakoitzeko orduko prezioen tarifari. Ildo horretatik, GEDESAk ordura arte aplikatzen zituen prezioei eutsi zitzaien, baina zuzeneko kostuaren eta zeharkako kostuen artean banatu ziren.

Hartara, 2012. urterako, TRACASAk, zerga-bilketa kudeatzeko mandatuarengatik, GEDESAk 2011rako kalkulatu zituen prezioak kobratzen dizkio Gobernuari, ehuneko hiru gehituta, azaroko KPIaren aplikazioa dela eta.

GEDESAk, mandaturako –bere jarduera bakarrerako, gorago esan dugun bezala– ezarri zituen prezioei esker, soberakin nabarmenak lortu ditu azken ekitaldietan. Hona hemen enpresaren azken ekitaldietako emaitzak, eurotan:

| Aldia | Ustiapeneko emaitza | Diru-sarrera finantza-rioak | Zerga aurreko emaitza |
|---|---|---|---|
| 2007 | 262.578 | 58.896 | 321.557 |
| 2008 | 227.811 | 76.776 | 304.588 |
| 2009 | 171.165 | 45.139 | 216.304 |
| 2010 | 74.710 | 36.403 | 111.112 |
| 2011/09/30 | 80.326 | 44.329 | 124.655 |

GEDESAk finantza-inbertsio hauek zituen 2011. urtean:

- Nafarroako Gobernuaren zor publikoa: 280.000 euro
- Epe laburreko ezarpenak: 500.000 euro
- Enpresa Korporazio Publikoa (CPEN) sozietateari emandako mailegua: 1.100.000 euro

## V.2. CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE NAVARRA, S.L.

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L. (CEIN, S.L.) izeneko enpresa publikoa sortu zen CEIN, S.A.k, Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A.k (ANAIN) eta Navarra de Verificaciones Legales, S.A.k (NAVELSA) bat egin zutenean.

CEIN, S.L.k xede soziala du Foru Komunitateko garapen ekonomiko eta teknologikorako laguntza teknikoa ematea, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarra kudeatzea eta lege-metrologiaren arloko azterketak eta egiaztapenak egitea.

Hona hemen CEIN, S.L. sozietatearen 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren inguruko datu batzuk, eurotan:

| | Zenbatekoa |
|---|---|
| Negozio-zifra | 2.698.221 |
| Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, ustiapenerako | 3.852.449 |
| Hornidurak | 1.782.345 |
| Langile-gastuak | 3.732.202 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 1.089.062 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 239.752 |
| Ustiapeneko emaitza | 156.051 |
| Emaitza finantzarioa | -105.909 |
| Zerga aurreko emaitzak | 50.142 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak CEIN, S.L.ren negozio-zifraren ehuneko 57 izan ziren 2011n, ustiapen-gastuen ehuneko 22 estaltzeko adina. Hala ere, Nafarroako Gobernuak CEIN, S.L.ri proiektuen finantzaketarako emandako 3.852.449 euroko diru-laguntza kontuan hartuz gero, ustiapen-gastu guztien ehuneko 79 finantzatuko litzateke Foru Administraziotik jasotako diru-sarreren bidez.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua konparatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | ANAIN | CEIN,S.A. | NAVELSA | Guztira | CEIN,S.L. |
|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendaritzakoak | 1 | 5 | 1 | 7 | 6 |
| Teknikariak | 7 | 66 | 4 | 77 | 71 |
| Administrariak | 3 | 11 | | 14 | 12 |
| Gainerako langileak | | 1 | | 1 | 1 |
| **Langileak, guztira** | **11** | **83** | **5** | **99** | **90** |
| **Kostu osoa (soldatak eta gizarte-zamak)** | **694.049** | **3.356.582** | **174.054** | **4.224.685** | **3.732.202** |
| Langileen batez besteko kostua | 63.095 | 40.441 | 34.811 | 42.674 | 41.469 |

ANAIN eta CEIN, S.A. sozietateek 2011n bost mandatu jaso zituzten, guztira 1.453.100 eurokoak. Lagin honetan lau mandatu aztertu dira, guztira 1.342.381 euro egiten dutenak:

| Departamentua/ Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua BEZik gabe | % 50etik gorako kanpo-kontratazioaren portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| Ekonomia eta Ogasuna | ANAIN | Nafarroa bekak kudeatzea | 32.683 | |
| Ekonomia eta Ogasuna | ANAIN | Moderna Plana kudeatzea | 296.343 | |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | CEIN, S.A. | Educa programa garatzea | 363.556 | 55 |
| Land. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | CEIN, S.A. | Laguntzak kudeatzea | 649.799 | |
| | | **Lagineko mandatuak, guztira** | **1.342.381** | |
| | | CEIN, S.L.rentzako mandatuak, guztira | 1.453.100 | |

CEIN, S.L.k 2012. urteko mandatuetarako prezio berriak onetsi zituen, bat egindako enpresen kostu bateratuak eta 2012an zeuden lanbide-kategorietako ordainsari-baldintzak kontuan hartuz kalkulatutako prezioak, hain zuzen. Zeharkako langile-kostuen ehuneko 11,3 eta gastu orokorren ehuneko 15 egoztea erabaki zen.

## V.2.1. ANAIN

### ANAINi egindako mandatuen prezioak

Ez dago inon jasota ANAINentzako mandatuen baldintza ekonomikoak arautzeko agiririk onetsi denik.

ANAINek 776.816 euroko negozio-zifra izan zuen 2010ean, oso-osorik Gobernuaren mandatuetatik sortua.

Honako kontzeptu hauek biltzen ditu ANAINentzako mandatuen prezioak:

a) Langileen zuzeneko prezioa: mandatuari atxikitako pertsonen 2011ko ordainsari osoak, bai finkoak bai aldakorrak (soldata finkoaren ehuneko 10 edo 15), eta gizarte segurantzaren kostua. Sistema horren bidez, lanbide-kategoria berean tarifa ezberdina ateratzen da langile bakoitzarentzat.

b) Zeharkako kostuak: langileen zuzeneko kostuari portzentaje bat aplikatzen zaio, ehuneko 25 eta 29 bitartekoa, mandatuaren arabera.

### Berrikusi diren ANAINentzako mandatuak

• 2008tik 2011ra bitartean ANAINen esku utzi zen Nafarroako Garapen Ekonomikoaren Eredu Berria (Moderna Plana) egitea. Moderna Plana 2010ean onetsi zen. Plan hori kudeatzea zen 2011ko mandatuaren helburua.

Kudeaketa horrek 319.066 euroko kostua (BEZik gabe) izan zuen 2011n. Zenbateko horretatik ehuneko 54 dagokie mandatuan aritutako langileei (zuzendari nagusi bat, proiektuko

bost zuzendari, zuzendaritzako bi idazkari eta proiektuko bi teknikari, denak lanaldi partzialarekin), ehuneko 30 komunikaziorako, dokumentuak inprimatzeko eta lan-mahaiak antolatzeko gastuei, eta gainerakoa ANAINen egituraren gastuei.

Langileen zuzeneko kostua kalkulatzeko, aurreko atalean azaldutako prozedura erabiliz, mandatuari atxikitako pertsona bakoitzaren ordainsari osoak eta gizarte segurantza hartu ziren kontuan. Langileen orduko kostua aldatu egin zen 2011ko bigarren seihilekorako, bajak, eszedentziak, kontratuen luzapenak eta beste inguruabar batzuk zirela eta.

Langile-kostuak kontabilitatean identifikaturik eta justifikaturik daude, mandatuari atxikitako langileen ordainsarien lagin batean egiaztatu dugunez.

Gastu orokorren 29,17ko portzentajea zatiketa hau eginez ateratzen da: ustiapen-gastuen eta ibilgetuaren amortizazioaren guztizkoaren zati bat, zati mandatuari atxikitako langileen, mandatutik kanpoko administrari baten eta Administrazio Kontseiluaren dieten 2011ko kostua.

Ezin izan dugu egiaztatu zer irizpide erabili zen ustiapen-gastuetako batzuk gastu orokorren portzentajearen kalkuluan sartzeko eta beste batzuk zuzenean mandatuari egozteko.

Hirugarrenekiko gastuen lagin bat aztertu dugu. Plana abian jartzeko eta kudeatzeko jardunaldiei dagozkien gastuak dira, eta egiaztatu dugu faktura egokietan justifikaturik daudela. Gastu horien zenbatekoak ez ditu gainditu kontratazio administratiborako espediente bat adjudikazio-prozeduraren bidez izapidetu ahal izateko mugak, Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritakoak.

• ANAINek Nafarroa beken kudeaketa eta jarraipena egiteko jaso zuen mandatua 32.683 euroko aurrekontuarekin onetsi zen. Aurrekontu horretatik, 26.063 euro bekadun baten 2011. urte osoko langile-kostuetarako ziren, eta gainerakoa gastu orokorretarako.

Gastu orokorren ehuneko 25eko portzentajea aplikatu zen langile-kostuaren gainean. Ezin izan dugu egiaztatu nola zehaztu zen gastu orokorren ehuneko 25 hori.

### V.2.2. CEIN, S.A.

#### CEIN, S.A.ri egindako mandatuen prezioa

Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariak emandako abuztuaren 28ko 253/2008 Foru Aginduaren bidez onetsi zen CEIN, S.A.rentzako mandatuak arautzeko baldintza ekonomikoen agiria. 2011ko ekitaldirako prezioak 2011ko maiatzaren 12ko 183/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren.

Mandatuek CEIN, S.A.ren 2010eko negozio-zifraren ehuneko 58 egin zuten.

CEIN, S.A.ren mandatuei 2011n aplikatutako prezioa 2008. urtean kalkulatu zen, 36 lanbide-profil ezberdinetarako, ondoko kostuak egotziz:

• Mandatuan ari diren langileen zuzeneko kostua: lanbide-kategoria bakoitza lau ordainsari-mailatan banatu zen, eta maila horietako bakoitzeko batez besteko soldata kalkulatu zen. Batez besteko soldatan honako hauek sartu ziren: urteko soldata gordina, ordainsari aldakorra eta gizarte segurantza. Ordainsari aldakorraz enpresaren helburuak eta emaitzak ordaintzen dira. Soldata finkoaren eta gizarte segurantzaren arteko baturaren gaineko gehieneko portzentaje bat da, lanbide-kategoriaren araberakoa (atezainentzat ehuneko bost, zuzendaritzakoentzat ehuneko 18).

• Zeharkako langile-kostua: ehuneko 12, zuzeneko langile-kostuaren gainean.

• Gastu orokorrak: ehuneko 18, guztizko langile-kostuaren (zuzenekoa eta zeharkakoa) gainean.

• Mandatua bukatzean kontratua bukatuko zaien langileentzako kalte-ordainen kostua (lan egindako urte bakoitzeko 30 egun). Urteroko hornidura dauka.

Zeharkako langile-kostuarengatiko ehuneko 12ko portzentajea kalkulatzeko, zeharkako langile-kostuaren eta zuzeneko langile-kostuaren arteko zatiketa egin zen.

Gastu orokorren egozketaren portzentajea kalkulatzeko, ustiapen-gastuen ehuneko 15 eta ibilgetuaren amortizazioaren ehuneko 63 hartu ziren.

Kostuak kontabilitatean identifikaturik eta justifikaturik daude, langileen nominen eta gastu orokorren fakturen lagin batean egiaztatu dugunez.

2008ko ekitaldian kalkulatutako prezioak ehuneko 1,20 igo ziren 2009rako eta ehuneko 0,5, berriz, 2009tik 2010era, salbu eta proiektuetako koordinatzaileen eta zuzendaritza eta kudeatzailetzako langileen ordainsariak; horiei 2010ean hurrenez hurren ehuneko 3,8 eta 7,72 jaitsi zitzaizkien ordainsariak, krisiaren aurkako neurriei buruzko dekretua aplikaturik. 2010eko prezio berak onetsi ziren 2011n.

**Berrikusi diren CEIN, S.A.rentzako mandatuak**

- “Educa proiektua”

Proiektu hori 2000. urtean jarri zen abian, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeei kudeaketa akademikorako laguntza informatikoa emateko helburuarekin.

Lehendakaritza Departamentuak egin zuen mandatua, baina zerbitzuak Hezkuntza Departamentuarentzat dira.

Mandatuaren hasierako aurrekontua (242.372 euro, BEZik gabe) ehuneko 50 handitu zen, 363.556 euroraino, estatistiken kudeaketa, SAP bidezko datu trukearen aldaketa eta beste hobekuntza batzuk erantsi zirelako.

CEIN, S.A.k Administrazioari 363.556 euro fakturatu zizkion, aurreikusita zegoen bezala. Guztizko zenbateko horretatik ehuneko 55 dagokie enpresa publikoak hirugarrenekin kontratatu zituen zerbitzuei, eta gainerakoa CEIN, S.A.ren langile-gastuei dagokie.

Aurreko gastuaz gainera, CEIN, S.A.k 14.403 euro (BEZik gabe) fakturatu zizkion Gobernuari, proiektua ikastetxe itunduetan ezartzeagatik. Gastu hori ez zitzaion mandatuari egotzi. Egotzi izan balitz, mandatuaren aldaketa izapidetu beharko zatekeen, kontratu administratiboetan aldaketak egiteko ezarritako prozedura berak betez, halaxe ezarri baitzen agiri arauemailean, mandatuaren hasierako aurrekontua, zeina jada ehuneko 50 handitua baitzen, portzentaje horren gainetik handitzen zen kasuetarako.

Educa proiektua burutzeko, CEIN, S.A.k bi enpresari zuzenean adjudikatu zizkien zerbitzuak, hurrenez hurren 47.306 eta 188.359 eurotan, BEZa barne, enpresa horiek bakarrik omen zituztelako giza baliabide egokiak, zenbait teknologiatan adituak eta Educa proiektuaren arkitektura eta datu-eredua ongi ezagutzen zituztenak.

Zuzeneko bi kontratazioetako bat 2000. urtean hasi zen. Enpresa horiekin azken urteetan egindako kontratuen zenbatekoak honakoak dira, eurotan, BEZa barne:

| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---|---|---|---|---|---|
| A enpresa | 77.126 | 121.337 | 194.360 | 140.238 | 188.359 |
| B enpresa | | 46.138 | 55.869 | 55.568 | 47.306 |

- “Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren laguntzen kudeaketa”

Mandatu hori 649.799 euroko aurrekontuarekin (BEZik gabe) onetsi zen, 2011ko urtarriletik azarora bitarteko aldirako.

CEINek mandatua betetzeko lanean jarri dituen teknikarien taldea kudeatutako laguntza motaren arabera osatu da. Talde bakoitzak koordinatzaile bat du, eta enpresa publikoko zu-

zendaritzaren laguntza. Langile horiengatik, zuzeneko kostutzat egozten da ordu kopuru jakin bat, urteko 1.592 lanordu kopuruari honako portzentaje hauek aplikatuz kalkulatutakoa:

a) Zuzendaritza eta kudeatzailetzako langileen kasuan, ehuneko 2,5, energia arloko laguntzen kudeaketa salbu, hor ehuneko 25eko portzentajea aplikatzen baita.

b) Koordinaziorako, ehuneko 6tik 10era bitarte.

2011ko azarora arteko mandatua bazen ere, enpresa publikoak abenduan ere kudeatu zituen laguntzak. Abenduko kudeaketak Administrazioari ekarritako gastua 55.017 eurokoa izan zen (BEZik gabe), eta 2012ko aurrekontuari egotzi zitzaion.

Enpresa publikoak 621.423 euro (BEZik gabe) fakturatu zizkion Administrazioari, aurrekontua baino 28.377 euro gutxiago, mandatuari esleitutako langileen bajen ondorioz. Laneskuarengatik, 2011. urterako onetsitako tarifak aplikatu ziren.

Mandatu honetako kilometraje gastuak 10.729 eurokoak izan ziren, eta, lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu joan-etorriak justifikaturik daudela, langileek eta laguntza jaso duen enpresak sinatutako bisita-akten bidez.

## V.3. GESTIÓN AMBIENTAL DE NAVARRA, S.A.

GAN, S.A. enpresa publikoa hiru sozietate publiko hauek bat eginda sortu zen: Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. (Viveros), Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A. (NAMAINSA) eta Echauri Forestal, S.L.

GAN, S.A.ren xede soziala da hainbat jarduera egitea, ingurune naturalarekin, eremu babestuekin, bide publikoekin, ingurumenarekin, hondakinekin, baso ondarearekin, ibai parkeekin edo hazi eta landareekin zerikusia dutenak, besteak beste.

Ondoko taulan GAN, S.A.ren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoera azaltzen da, eurotan.

| | Zenbatekoa |
|---|---:|
| Negozio-zifra | 10.102.220 |
| Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, ustiapenerako | 1.162.069 |
| Hornidurak | 6.527.643 |
| Langile-gastuak | 5.408.599 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 746.305 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 422.629 |
| Ustiapeneko emaitza | -515.695 |
| Emaitza finantzarioa | 53.657 |
| Zerga aurreko emaitzak | -462.038 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak 2011n GAN, S.A.ren negozio-zifraren ehuneko 79 izan ziren. Diru-sarrera horien bidez finantzatu ahal izan zen enpresaren ustiapen-gastu guztien ehuneko 61. Sozietateak, zenbait proiektutarako, Nafarroako Gobernutik jaso zuen ustiapenerako diru-laguntza kontuan hartuz gero, GAN, S.A.ren ustiapen-gastuen ehuneko 90,50 finantzatu zen Foru Administrazioaren diru-sarrerez.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua erkatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | 2010/12/31 | | | | 2011/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| | Viveros | NAMAINSA | Echauri Forestal | Guztira | GAN,S.A. |
| Zuzendaritzakoak | 1 | | | | 1 |
| Goi mailako tituludunak | 47 | 10 | | | 56 |
| Erdi mailako tituludunak | 15 | 12 | | | 28 |
| Ordenagailuko langileak | 2 | | | | 1 |
| Administrariak | 9 | 6 | | | 12 |
| Ofizialak | 34 | | | | 35 |
| Arduradunak | 5 | 2 | | | 4 |
| Peoiak | 3 | 1 | | | 3 |
| Funtzionarioak | 4 | | | | 4 |
| **Langileak, guztira** | **120** | **31** | **0** | **151** | **144** |
| **Kostua, guztira** | **5.789.105** | **978.698** | **0** | **6.767.803** | **5.408.599** |
| Batez besteko kostua | 48.243 | 31.571 | | 44.820 | 37.560 |

GAN, S.A.n bat egindako sozietateek 2011n 52 mandatu jaso zituzten, guztira 10.031.756 eurokoak (BEZik gabe). Lagin honetan zortzi mandatu aztertu dira, guztira 3.941.502 euro egiten dutenak:

| Departamentua/Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua BEZik gabe | % 50etik gorako kanpo-kontratazioaren portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| Kultura, Turismoa eta Erakunde Harrem. | VIVEROS | Turismo bulegoak kudeatzea | 121.292 | 88 |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | VIVEROS | Urbasa parkea mantentzea, 2011 | 296.610 | 89 |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | VIVEROS | Ehiza eta arrantza kudeatzea | 454.292 | |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | VIVEROS | LGENF laguntzak kudeatzea | 271.856 | |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | VIVEROS | Done Jakue bidea mantentzea | 116.425 | 90 |
| Sustapena eta Etxebizitza | VIVEROS | Atsedengune eta begiratokiak kudeatzea | 2.102.239 | 81 |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | NAMAINSA | Uren kontrolerako sareak | 366.968 | |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | NAMAINSA | Hondakinak kudeatzeko plana | 211.820 | |
| | | **Lagineko mandatuak, guztira** | **3.941.502** | |
| | | GAN, S.A.rentzako mandatuak, guztira, 2011n | 10.031.756 | |

Viveros enpresak 2010eko ekitaldirako onetsitako prezioak aplikatu zituen GAN, S.A. sozietateak 2012an.

### V.3.1. Viveros

#### Viverosi egindako mandatuen prezioak

Mandatuek Viverosen 2010eko negozio-zifraren ehuneko 84 egin zuten.

2011n mandatuak arautu zituzten baldintza ekonomikoen agiriak 293/2010 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren, eta 2011ko ekitaldirako luzatu ziren.

Viverosek 2009ko ekitaldian honako kostu hauek egotzi zituen, mandatuen prezioa ezartzeko: zuzeneko langile-kostuak, zeharkako kostuak, dietak eta joan-etorriak, eta kanpo-kontratazioak.

Zuzeneko langile-kostuek barruan hartzen dituzte arlo bakoitzeko lanbide-kategorietako batez besteko ordainsari gordinak, enpresaren kargurako gizarte segurantza eta beste kostu batzuk (langileen hautapena, urte bakoitzeko 30 eguneko kalte-ordaina kontratuaren amaieragatik), eta mandatuari atxikitako langileen dedikazioaren arabera egozten dira.

Orduaren zuzeneko kostuari zenbateko finko bat gehitzen zaio, ondoko kontzeptu hauei dagozkien zeharkako kostuengatik:

- Zeharkako langile-kostua: 1,90 euro 2009an. Kudeaketa, administrazio, kontabilitate eta informatika arloetako langileen kostua zati enpresako langile guztien kostua eginez kalkulatu zen. 2011n 1,91 euro egotzi ziren.

- Gastu orokorrak: kanpoko zerbitzuengatiko gastuen ehuneko 88 eta ibilgetuaren 2009ko amortizazioaren ehuneko 96 (gastu arruntak finantzatzeko ekitaldian jasotako diru-laguntza deskontaturik) enpresako langileen guztizko kopuruaz zatituz kalkulatu ziren.

Zeharkako kostu unitarioak mandatuari zuzenean esleituta dauden langileen orduen kopuruaren gainean soilik aplikatzen dira.

Hirugarrenekiko kontratazioei dagozkien gastuak Administrazioari fakturatzen zaizkio adjudikatutako prezioan edo exekutatutakoan, kontratuan aldaketarik eginez gero.

Kostu guztiak, bai zuzenekoak bai zeharkakoak, kontabilitatean jasorik daude.

Viverosek 2011n egindako mandatuei aplikatu zizkien zuzeneko esku-lanaren prezioak 2009an kalkulatutakoak izan ziren, 2010erako ehuneko 0,5 gehituta. 2011n, berriz, 2010eko prezioei eutsi zitzaien.

**Berrikusi diren Viverosentzako mandatuak**

Berrikusitako mandatu guztietan, Viverosek Administrazioari fakturatu zizkion mandatua betetzeko zuzenean esleitutako langileen kostuak, zeharkako langileriaren kostuak eta gastu orokorrak, 2011rako onetsitako prezioetan.

- “Interpretazio zentroak eta turismo bulegoak kudeatzea”

Mandatu hori 2007. urtean hasi zen eta urtez urte luzatu zen. 2011. urterako aurrekontua 121.292 eurokoa izan zen (BEZik gabe), eta zenbateko hori bera fakturatu zitzaion Administrazioari. Kanpo-kontratazioak mandatuaren prezioaren ehuneko 88 hartu zuen. Enpresa publikoa arduratu zen enkargatutako zerbitzuen koordinazioaz eta zuzendaritza teknikoaz.

Mandatuaren aurrekontuan xehetasunez azaltzen dira hirugarrenekin kontratatutako zerbitzuak. Viverosek Europako atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez adjudikatu zuen enkargatutako kudeaketa. Kontratazio-espedientea izapidetzeko Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako betekizunak bete zituen.

Mandatu hori 2012ko ekitaldirako luzatu zen, aurrekontu txikiagoarekin, aurrekontu-doitzeen ondorioz.

- “Urbasa-Andia parke naturaleko hobekuntza eta mantentze lanak”

Mandatu horrek 296.610 euroko (BEZik gabe) aurrekontua izan zuen 2011. urterako. Enkargatutako lanen ehuneko 89 kanpoko hirugarrenei kontratatu zitzaizkien. Viverosek bere gain hartu zituen obraren koordinazioa eta zuzendaritza.

Kontratatutako zerbitzuen zenbatekoa zela-eta, kontratuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu ziren, Kontratu Publikoei buruzko Legeari jarraituz.

- “Ehiza eta arrantza kudeatzea”

Mandatu horrek 2011rako 454.292 euroko aurrekontua izan zuen (BEZik gabe). Aurreikusitako zenbatekoa fakturatu zitzaion Administrazioari, alegia, mandatuan aritutako zuzeneko langileen kostua, zeharkako langileak, gastu orokorrak, eta diru kopuru txiki bat, 5.950 euro, agiri egokien bidez frogatutako ibilgailu, erosketa, dieta eta bidaia gastuengatik.

- “LGENF laguntzak kudeatzea”

Mandatu horretarako 271.856 euroko (BEZik gabe) aurrekontua onetsi zen 2011n. Viveros enpresaren langileek bete zuten mandatua, zazpi lagunek (bost teknikari eta bi administrari) osatutako taldeak, hain zuzen ere. Viverosek aurrekontuan ezarritako zenbateko bera fakturatu zion Administrazioari.

- “Done Jakue bidea mantentzea”

2011rako hasierako aurrekontua 116.425 eurokoa izan zen (BEZik gabe). Viverosek hirugarrenekin kontratatu zituen mandatuko lanen ehuneko 90, bi kontratu adjudikatuz, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, 75.166 eta 29.469 euroko (BEZik gabe) prezioetan.

Done Jakue bidea mantentzea 2012. urtean ez zitzaion enpresa publikoari enkargatu, aitzitik, Departamentuak zuzenean kontratatu zuen.

- “Errepide sareko atsedenguneak mantentzea”

2011rako, mandatuaren hasierako aurrekontua 2.344.378 eurokoa zen (BEZik gabe), baina aldatu egin zen, Nafarroako Gobernuak defizitari eusteko onetsi zituen aurrekontudoitzeen ondorioz: 2011rako agindutako gastua ehuneko 10 murriztu zen, eta horrek bai mandatuan ari ziren Viveroseko langileei bai kanpoko kontratazioei eragin zien.

Mandaturako behin betiko aurrekontua, 2011rako, 2.102.239 eurokoa (BEZik gabe) izan zen. Administrazioari 2.112.032 euro fakturatu zitzaizkion, eta zenbateko horretatik ehuneko 81 zegokien hirugarrenekiko kontratazioei.

Proiektu batean definiturik eta zehazturik dauden jarduketetarako egiten dira kontratazioetako batzuk, eta besteak eguraldiaren arabera edo etorkizunean erantsiko diren lan-arloen arabera aurreikusten dira. Azken horiek ez dira hasieratik adjudikatzen; arloko kontratuaren adjudikazioa duenari enkargatzen zaizkio, beharrak sortu ahala, kontratua bete bitartean. Prozedura hori aurreikusita dago Viverosek horrelako lanetarako onetsi zituen baldintza tekniko arauemaileen agirian. Bertan ezarri zenez, jarduketa unitate berriak edo exekuzio eremu berriak sortzen badira kontratuaren adjudikazio-prezioa igo ahal izanen da, adjudikaziohartzaileak aurkeztutako eskaintzan ageri diren parametro ekonomikoen arabera.

Atsedenguneak mantentzeko kontratuen adjudikazio-zenbatekoa eta exekuzioa konparatzen dira hurrengo taulan, 2009tik 2011ra bitarteko urteetarako.

| Urtea | Adjudikazioa | Fakturazioa |
|---|---|---|
| 2009 | 650.795 | 1.010.301 |
| 2010 | 654.049 | 993.719 |
| 2011 | 675.632 | 1.214.453 |

Iruña-Zangoza eremuko mantentze lanen kontratazioa berrikusi da. Europako atalasetik gorako prozedura irekiaren bidez adjudikatu zen, urteko 85.222 euroko prezioan, 483.527 euroko guztizko balio zenbatetsiaren gainean. Baztan-Bidasoa eremuko kontratazioa ere berrikusi da; hori publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu zen, 41.510 eurotan. Biak 2009an adjudikatu ziren eta bi kasuetan kontratazioaren espedientea Kontratuei buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu zen.

Mandatu honetan ere kanpoko enpresekin kontratatu ziren material, landare eta lan txikien gastuak, guztira 494.727 eurotan. Horrelako gastuak fakturen edo kontratazio-espedienteen bitartez kudeatzen dira, kontratazioari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz, baldin eta ez badituzte gainditzen legez finkatutako zenbatekoak.

### V.3.2. NAMAINSA

**NAMAINSAri egindako mandatuen prezioak**

NAMAINSAk prezioak zehazteko irizpideak arautzen dituzten baldintza ekonomikoen 2008ko ekaineko agiri batzuk ditu, formalki onetsi gabekoak. Enpresaren Administrazio Kontseiluak 2008ko azaroaren 4an onetsi zituen tarifak.

Mandatuek NAMAINSAren 2010eko negozio-zifraren ehuneko 63 egin zuten.

Nahiz eta onetsitako prezioak lan-eskuarenak izan, mandatua betetzeko behar diren prozesu guztiak hartzen dira oinarritzat mandatuen aurrekontua egiteko. Prozesu bakoitzaren prezioa zehazteko, kostu hauek egozten dira:

- Zuzeneko langile-kostuak
- Zeharkako langile-kostuak: ingurumen kalitateari buruzko azterlanetako jardueretarako zuzeneko langile-kostuen ehuneko 53,96.
- Gastu orokorrak: ehuneko 56,46, guztizko langile-kostuen (zuzenekoak eta zeharkakoak) gainean.

NAMAINSAk arloka sailkatzen du bere lana, eta arlo bakoitzean jarduerak proiektuei esleitzen zaizkie (ingurumen kalitateari buruzko azterlanetako jarduerak gainerako jardueretatik bereizten dira). Proiektu bakoitzari diru-sarrerak, kostuak eta langileen dedikazio orduak egozten zaizkio.

Enpresak ehuneko 53,96ko portzentajea jasanarazten du ingurumen kalitateari buruzko azterlanetako jardueren prezioan, halako lanek izaten dituzten betekizun eta berezitasun teknikoak direla eta. Zeharkako langile-kostuen ehuneko 53,96ko portzentajea zehazteko, langile-gastuez gainera, kontuan hartzen dira zenbait ustiapen-gastu.

Enpresaren kostu guztiak (langileak, ustiapen-gastuak eta ibilgetuaren amortizazioa) kontuan hartzen dira lan-eskuaren prezioaren kalkuluan, nahiz zuzeneko kostu gisa nahiz zeharkako kostuen eta gastu orokorren portzentajeak kalkulatzeko egotzitako kostu gisa. Kostuak 2010eko ekitaldirako zenbatespenetan oinarrituta kalkulatu ziren. Gastu guztiak identifikaturik daude enpresaren kontabilitatean.

**Berrikusi diren NAMAINSArentzako mandatuak**

- “Uren kontrolerako sareak eta ur zerbitzuarentzako laguntza teknikoa”

Mandatu horren xedea da kalitate kimikoaren kontrolerako eta kontrol hidrometrikorako lanak egitea.

Haren aurrekontua (366.968 euro, BEZik gabe) ezartzeko prozesuetan, jarduketa guztietako unitateen kopuruak eta unitateko prezioak zehaztu ziren. Unitatearen prezioa kalkulatzeko, langileen dedikazio orduak egotzi ziren, eta 2010ean onetsitako prezioa aplikatu zitzaion lanbide-kategoria bakoitzari. Prezioa ez zen igo 2011n.

Aurrekontuan ezarritako zenbateko bera fakturatu zitzaion Administrazioari. Egindako jarduketak (laginen kopurua, analisiak) fakturetan jasorik daude eta faktura horiek frogatzen dute aurrekontuko unitateak gauzatu direla.

- “Hondakinen Planerako eta klima aldaketarako laguntza teknikoa”

Onetsi zenean 211.820 euroko aurrekontua ezarri zen (BEZik gabe). Aurreko mandatuan bezala, mandatua betetzeko egin beharreko jarduketen balorazioaren bidez ezarri zen aurrekontua, eta jarduketen prezioa kalkulatzeko, aurreikusitako lan orduak egotzi ziren, 2010erako onetsitako prezioan baloratuak.

211.810 euro (BEZik gabe) fakturatu zitzaizkion Foru Administrazioari. Fakturetan zehaztu egiten dira burututako jarduketak.

## V.4. INSTITUTO NAVARRO DE TECNOLOGÍAS E INFRAESTRUCTURAS AGROALIMENTARIAS

Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. (INTIA) sozietatea ondoko sozietate publiko hauen bat-egitearen emaitza da:

- Riegos del Canal de Navarra, S.A (RICAN, S.A.)
- Riegos de Navarra, S.A.
- Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A. (ICAN).
- Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, S.A. (ITGA).
- Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A. (ITGG).

INTIA sozietatearen xedea da nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, nekazaritzako elikagaien industriarekin eta ureztaketarekin zerikusia duten jarduerak eta zerbitzuak egitea.

Hona hemen INTIA, S.A.ren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren adierazle batzuk, eurotan:

| | Zenbatekoa |
|---|---:|
| Negozio-zifra | 22.938.206 |
| Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, ustiapenerako | 6.312.740 |
| Hornidurak | 16.739.234 |
| Langile-gastuak | 10.068.789 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 3.237.625 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 448.559 |
| Ustiapeneko emaitza | 156.332 |
| Emaitza finantzarioa | -51.210 |
| Zerga aurreko emaitzak | 105.123 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak INTIA, S.A.ren negozio-zifraren ehuneko 59 izan ziren 2011n, enpresa publikoaren ustiapen-gastu osoen ehuneko 44 finantzatzeko adina. Sozietate publikoak Nafarroako Gobernutik jaso zituen diru-sarrerek ustiapen-gastuen ehuneko 65 finantzatu zuten, kontuan hartzen baditugu, mandatuez gain, ustiapenerako 6.312.740 euroko diru-laguntzak.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua erkatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | 2010/12/31 | | | | | | 2011/12/31 |
|---|---:|---:|---:|---:|---:|---:|---:|
| | ITGA | ITGG | RIEGOS | RICAN | ICAN | Guztira | INTIA |
| Zuzendaritzakoak | 1 | 1 | 1 | | | 3 | 5 |
| Goi mailako tituludunak | 17 | 39 | 18 | | 11 | 85 | 147 |
| Erdi mailako tituludunak | 28 | 15 | 12 | | 6 | 61 | |
| Administrariak | 4 | 11 | 3 | | 2 | 20 | 20 |
| Gainerako langile kualifikatuak | 13 | 19 | 7 | | 4 | 43 | 36 |
| Kualifikazio gabeko langileak | 6 | 0 | 0 | | | 6 | 6 |
| **Langileak, guztira** | **69** | **85** | **41** | **0** | **23** | **218** | **214** |
| **Kostu osoa (soldatak eta gizarte-zamak)** | **2.960.261** | **3.799.937** | **2.906.386** | **0** | **1.080.464** | **10.747.048** | **10.068.789** |
| Langileen batez besteko kostua | 42.902 | 44.705 | 70.887 | | 46.977 | 49.298 | 47.050 |

2012an homogeneizatu egin ziren enpresa batuetako lanbide-taldeetako soldatak; langileen tarifa berriak onetsi ziren 2012. urterako, lanbide-kategorietako batez besteko ordainsarietatik abiatuta. Zuzeneko langile-kostuen gainean aplikatu beharreko gastu orokorren ehuneko 15,71ko portzentajea ezarri zen.

INTIA sortzeko bat egindako bost sozietateetatik, 2011n mandatuak jaso zituzten Riegos de Navarrak, ITG Ganaderok eta ITG Agrícolak: 24 mandatu, guztira 7.591.540 eurokoak. Lagin honetan zazpi mandatu aztertu dira, guztira 5.667.889 euro egiten dutenak:

| Departamentua/ Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua BEZik gabe | Hirugarrenei kontrataturiko % 50etik gorako portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena | Riegos Navarra | Valtierrako ureztaketa modernizatzea | 4.025.423 | 92 |
| | Riegos Navarra | Tafallako ureztaketa sarea | 371.128 | 95 |
| | Riegos Navarra | Ureztaketen Foru Planaren bulego teknikoa | 254.327 | |
| | ITGG | Zerri-aziendaren saneamendua | 347.910 | 77 |
| | ITGG | Abeltz. Zerbitzuko jard. adm. eta tekn. | 277.912 | |
| | ITGG | Txertaketa | 296.163 | |
| | ITGA | Izurrien kontrola | 95.026 | |
| | **Lagineko mandatuak, guztira** | | **5.667.889** | |
| | INTIA, S.A.rentzako mandatuak, guztira, 2011n | | 7.591.540 | |

## V.4.1. Riegos de Navarra

### Riegos de Navarrari egindako mandatuen prezioak

Riegos de Navarra, S.A.ri egindako mandatuetarako baldintza ekonomikoen agiria Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 24ko 211/2009 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Mandatuek Riegos de Navarraren negozio-zifraren ehuneko 95 inguru egiten dute.

Enpresa publiko horrek ondoko kontzeptuetan banatzen du mandatuen prezioa: zuzeneko eta zeharkako langile-kostuak, mandatuari zuzenean egotzi ahal zaizkion ustiapen-gastuengatiko zeharkako kostuak, eta hirugarrenekiko kontratazioen gastuak.

Zuzeneko langile-kostua honako sistema honen bidez kalkulatu zen 2009ko ekitaldian:

• Soldaten orduko kostua –langile guztien ordainsariak kontuan harturik kalkulatua, gizarte segurantzarik gabe– koefiziente batzuen arabera haztatu zen: administrarien kategoriako 1etik arloko gainbegiralearen kategoriako 2ra bitarteko koefizienteak aplikatu zitzaizkion.

• Soldaten orduko kostu haztatua oinarritzat harturik, lanbide-kategoria bakoitzeko urteko ordainsariak kalkulatu ziren.

• Azkenik, kategoria bakoitzeko orduko kostua kalkulatu zen, urteko ordainsari haztatuei kategoria bakoitzeko langile guztien benetako gizarte segurantza gehituz.

Kategoria bakoitzaren barruko eta kategorien arteko soldata aldeak orekatu eta berdintzeko asmoz ezarri zen sistema hori, langileen antzinatasunak soldata-kostuetan nolako eragina zuen ikusirik. Sistema horrekin soldatak kategorien arabera birbanatzen dira, baina guztizko ordainsariei eusten zaie.

Zeharkako kostuen ehuneko 15,40 aplikatu zitzaion orduaren zuzeneko kostuari.

Portzentaje hori ateratzen da 2009rako zenbatetsitako gastu orokorren eta urte horretarako aurreikusitako langile-gastuen (soldata eta ordainsariak eta gizarte segurantza) arteko zatiketa eginez.

Ez dira gastu orokorretan sartu ibilgailuekin zerikusia dutenak, horiek kilometrajeen kostua kalkulatzeko egotzi baitira; ezta azterlan eta proiektuak, aholkularitza eta antzeko ustiapen-gastuak ere, horiek zuzenean egotzi ahal zaizkielako mandatuari.

Kilometro bakoitzeko 0,32 euroko kilometraje-kostua aplikatu zen. Ibilgailuen zuzeneko gastuak eta egindako kilometroen kopurua hartu ziren kontuan kostu hori kalkulatzeko.

Hirugarrenei kontratatuiko obrak, berriz, obra-ziurtagirien zenbatekoaren arabera fakturatzen zaizkio Administrazioari.

Gastu guztiak, bai langile-gastuak bai ustiapenekoak, kontabilitatean identifikaturik eta nominetan jasorik daude.

2009rako onetsitako tarifak beren horretan utzi ziren 2010eko eta 2011ko ekitaldietan.

### Riegos de Navarrarentzako mandatuak

- “Valtierrako ureztaketa modernizatzeko proiektua”

Mandatu horrek 17.188.549 euroko (BEZa barne) aurrekontua izan zuen 2010etik 2012ra bitarteko aldirako. Guztizko zenbateko horretatik 16.544.179 euro Administrazioari dagozkio, eta gainerakoa Ureztatzaileen Elkarteak finantzatzen du Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legean ezarritako parametroen arabera.

Hona hemen Administrazioari dagokion gastuaren urtez urteko banaketa (hasieran onetsi zena eta geroago egin diren aldaketak):

| | Data | Adm. gastua | 2010. urtean | 2011. urtean | 2012. urtean | 2013. urtean |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroako Gobernuaren erabakia | 2010/07/19 | 16.544.179 | 69.254 | 8.000.000 | 8.474.934 | |
| Nafarroako Gobernuaren erabakia | 2010/12/20 | 16.220.477 | 0 | 5.250.000 | 10.970.477 | |
| Aldaketa, adjudikazioko beherapenagatik | | 12.085.022 | 0 | 4.750.000 | 7.335.022 | |
| Nafarroako Gobernuaren erabakia | 2012/10/10 | 12.085.022 | 0 | 4.750.000 | 5.750.391 | 1.584.631 |

Riegos de Navarrak hirugarrenekin kontratatu zuen proiektuaren exekuzioa. Enpresa publikoa bera arduratu zen obren zuzendaritzaz, agiri tekniko eta administratiboak egiteaz eta ureztatzaileentzako laguntza teknikoaz.

Obraren lizitazioa Europako atalasetik gorako prozedura irekiaren bidez izapidetu zen, zenbatetsitako balioaren ehuneko 27ko beherapenarekin.

| | Balio zenbatetsia, BEZik gabe | Zenbat lizitatzaile | Adjudikazioko prezioa BEZik gabe |
|---|---|---|---|
| Obra kontratua | 13.724.543 | 10 | 10.009.309 |

Adjudikazioko beherapenaren ondorioz, mandatuaren aurrekontua beheratu egin zen.

Gastuaren urtez urteko banaketa onetsia ez dator bat proiektuan ezarritako obra-planarekin. Horren harira, Riegos de Navarrak kontratazio agirian ezarri zuen lizitatzaileek kontuan hartu behar zutela, beren proposamen ekonomikoa finkatzerakoan, zenbateko kostu finantzarioak izanen zituzten obra-planaren arabera 2011n burutu eta hurrengo urtean ziurta-

tuko zuten obra finantzatzeko. Inguruabar horrek eragina izan zuen 2011n egin eta 2012an ziurtatutako 3.815.244 euroko obran.

Riegosek obren adjudikazio-hartzailearen ziurtagirien zenbatekoa fakturatu zion Gobernuari, bai eta zuzeneko gastuak ere, esaterako, kartografia, segurtasuna, joan-etorrietako gastuak eta dietak. Langileen 2011ko zuzeneko kostua 2009ko ekitaldirako onetsitako prezioetan fakturatu zen, hasierako aurrekontuan aurreikusitako ordu kopuru berarengatik. Obrek mandatu osoaren ehuneko 92 egin zuten, eta Riegoseko langileek ehuneko zazpi. Gainerakoak zuzeneko hainbat gastu dira.

Gastu guztiak justifikaturik daude.

• “Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko IV.1 eta IV.2 sektoreetan Tafallako herrilurretako lurzatien barneko banaketa sarearen proiektua burutzea”

Mandaturako 1.741.292 euroko (BEZik gabe) aurrekontua onetsi zen, eta horretatik ehuneko 95 dagokio obren exekuzioari. Mandatuaren gastuaren ehuneko 50 Tafallako Udalak finantzatzen du.

Riegos de Navarrak hirugarrenekin kontratatu zituen obrak. Europako publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zituen, 1.347.430 euroko (BEZik gabe) prezioan, lizitazioko prezioa baino ehuneko 18,20 merkeago.

Mandatuaren aurrekontua beheratu egin zen obren adjudikazioko prezioari egokitzeko.

Adjudikazioa zeukan enpresa hartzekodunen konkurtsoan sartu zen, eta egin gabe zeuden obra-unitateak berriro kontratatu ziren. Inguruabar horrek azaltzen du zergatik aldatu ziren enpresa publikoko teknikarien dedikazioari buruzko aurreikuspenak. Hala ere, mandatuaren amaierako fakturazioak ez zuen aurrekontua gainditu, eta Departamentuak langileen arloko aldaketak onartu zituen azken likidazioan.

Enpresa publikoak 2009ko ekitaldirako onetsitako orduko langile-prezioak aplikatu zituen. Gastu guztiak behar bezala jasorik eta ziurtaturik daude.

• “Ureztaketen Foru Plana garatzeko bulego teknikoa kudeatzea”

Mandatu hori, hasiera batean, Riegos de Navarra enpresa publikoari egindako 300.000 euroko transferentzia arrunt izendun gisa izapidetu zen.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiak 2012ko urtarrilaren 27an emandako 81/2012 Ebazpenaren bidez Riegos sozietate publikoaren esku utzi ziren, 2011. urterako, Ureztaketen Foru Plana garatzeko bulego teknikoko lanak, eta baimena eman zen 299.994 euroko gastua egiteko eta zenbateko hori ordaintzeko Riegos de Navarraren langile-gastuengatik.

Langile-kategoria bakoitzerako 2009an onetsitako prezioak aplikatu ziren.

300.000 euroen transferentzian, langile-gastuak 235.000 eurokoak ziren eta gainerakoa ibilgailuei, laguntza teknikoari, jardunaldiei eta beste kontzeptu batzuei zegokien. Mandatua formalizatzean, 300.000 euroko aurrekontu osoa bideratu da sozietate publikoaren langile-gastuetarako, eta ez da gastu orokorrik aurreikusi.

### V.4.2. ITG Ganadero

#### ITG Ganaderoren prezioen zehaztapena

ITG Ganadero enpresa publikoari egindako mandatuetarako baldintza ekonomikoen agiria Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren urtarrilaren 31ko 91/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Mandatuek ITG Ganaderoren negozio-zifraren ehuneko 36 inguru sortu zuten 2010. urtean.

Enpresa publiko horrek ondoko kontzeptuetan banatzen du mandatuen prezioa: zuzeneko eta zeharkako langile-kostuak eta mandatuari zuzenean egotzi ahal zaizkion ustiapen-gastuengatiko kostuak (erosketak, zerbitzuen kontratazioa, laguntza teknikoa, materialak, konponketak eta abar).

Langileen lan orduaren prezioa kalkulatzeko, honako kostu hauek egotzi ziren:

• Zuzeneko kostuak: langile-talde bakoitzeko batez besteko soldata eta enpresaren kargurako gizarte segurantza.

• Zeharkako kostua: zuzeneko langile-gastuen ehuneko 13,86.

Zeharkako kostuen ehuneko 13,86ko egozpen-portzentajea kalkulatzeko, gastu orokorren eta mandatuan zuzenean esku hartzen duten langileen ordainsarien arteko zatiketa egin zen.

Sozietate honek 51 kostu-zentro ezarri zituen eta horien artean banatzen dira enpresaren gastuak. 13,86ko portzentajea kalkulatzeko kontuan hartutako gastu orokorrak, berriz, kanpoko zerbitzuei eta kudeatzaileak eta arlo orokorreko beste lau pertsonak jasotzen dituzten ordainsariei dagozkie.

Ez zen ibilgetuaren amortizazioa sartu, eta kanpoko zerbitzuengatiko gastuetatik ehuneko 32 soilik hartu zen kontuan.

Enpresako ibilgailu bakoitzaren kilometroko kostua kalkulatzeko, enpresako 58 ibilgailuen gastuak (erregaia, konponketak, aseguruak, berrikuspenak eta zergak) aurreko ekitaldian egindako kilometro kopuruaz zatitu ziren. Gastu horiek bazter uzten dira gastu orokorren egozpen-portzentajearen kalkuluan.

Kostuak kalkulatzeko oinarritzat hartu ziren 2010eko ekitaldirako zenbatetsitako datuak, eta horiek ia ez dira desbideratu urte horretako benetako exekuzio datuetatik. 2010erako onetsitako tarifei eutsi zitzaien 2011n.

Kostuak identifikaturik daude galeren eta irabazien kontuan, eta, ordainsariei dagokienez, lagin batean egiaztatu dugu bat datozela ordaindutako nominekin.

**Berrikusi diren ITG Ganaderorentzako mandatuak**

Berrikusitako mandatu guztietan, lan-eskua 2011ko ekitaldirako onetsitako prezioan fakturatu zen.

• "Zerri-aziendaren saneamendu kanpainak egitea eta Zerri-aziendaren Nahitaezko Osasun Programa garatzea"

Mandatu horrek 2011rako izan zuen aurrekontua (347.910 euro, BEZik gabe) aurreikusitako zerrien kopuruaren arabera kalkulatu zen. Saneatu edo kontrolatutako zerri bakoitzeko prezioa zehazteko, honako hauek egotzi ziren: enkargatutako lanak burutzeko enpresa publikoko langileek egindako lan orduak, materialak, eta kontratatutako hirugarrenen zerbitzuak.

Asociación de Agrupaciones de Defensa Sanitaria de Ganado Porcino de Navarra (ASADS) elkarteak mandatuaren zati bat bete zuen, eta lankidetza hori 2006an sinatutako hitzarmenean arautu zen. Gure iritziz laguntza-kontratua da, eta Kontratuei buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu behar da haren adjudikazioa.

Elkarte horrek 2011n egindako zerbitzuen zenbatekoa 267.980 euro izan zen, BEZik gabe.

• "Behi-, ardi- eta ahuntz-azienda txertatzea mihi urdinaren gaitzaren 1. serotipoaren kontra, eta Culicoides eltxoak harrapatzeko tranpak mantentzea"

Mandatu horri 296.163 euroko (BEZik gabe) aurrekontua ezarri zitzaion, eta hura kalkulatzeko kontuan hartu zen zenbat abere ziren txertatzekoak: 82.000 behi eta 266.000 ardi.

59.727 behi eta 207.053 ardi txertatu ziren, eta enpresa publikoak benetan txertoa jarritako abelburuen arabera fakturatu zion Administrazioari.

• “Abere ustiategien zentsua”

Mandatu horren xedea da lan administratibo eta teknikoak egitea Abeltzaintza Zerbitzuan, eta, halaber, etenik gabe berrikusi eta eguneratzea abere ustiategien zentsu informatizatua, 2011. urtean, 277.912 euroko (BEZik gabe) prezioan. Aurrekontua bi teknikari eta lau administrariri dagokie.

Enpresa publikoak aurreikusirik zeuden ordu guztiak fakturatu zizkion Departamentuari, 2011ko ekitaldirako onetsitako prezioetan.

## V.4.3. ITG Agrícola

### ITG Agrícolaren prezioen zehaztapena

ITG Agrícola enpresa publikoarentzako mandatuei aplikatu beharreko baldintza ekonomikoen agiria otsailaren 7ko 50/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Mandatuek ITG Agrícolaren 2010eko negozio-zifraren ehuneko 39 sortu zuten.

ITG Agrícolari egindako mandatuen prezioak barruan hartzen ditu zuzeneko eta zeharkako langile-kostuak, hirugarrenekin kontrataturiko zerbitzuak eta erosketak eta mandatuaren beste ustiapen-gastu batzuk, zuzenekoak.

Lanbide-kategoria bakoitzeko langileen kostua 2008ko ekitaldirako kalkulatu zen. Ehuneko 2 igo zen 2009rako, ehuneko 0,5 gehiago 2009tik 2010era, eta ez zen igo 2010etik 2011ra.

Lanbide-kategoria bakoitzeko lan orduaren prezioa kalkulatzeko, 2008ko ekitaldiko kostu hauek egotzi ziren:

• Zuzeneko kostua: lanbide-kategoria bakoitzeko langileen batez besteko ordainsari gordina eta enpresaren kargurako gizarte segurantza (kasu guztietan, ordainsari gordinaren ehuneko 28 hartu zen).

• Zeharkako kostuak: langile-kostuen ehuneko 15.

Zeharkako kostuen ehuneko 15eko egozpen-portzentajea honako gastu hauek kontuan hartuta zehaztu zen: kudeaketa arloko langileak, administrazioko langileak, langileen aseguruak eta ustiapen-gastuen ehuneko 20 inguru.

Ez zen egotzi ibilgetuaren amortizazioa (176.075 euro), ekitaldi bakoitzean emaitzei aplikatzen zaielako inbertsioen finantzaketarako jasotako diru-laguntzaren aldizkatzea.

Joan-etorriak ez ziren gastu orokorretan sartu. Enpresako ibilgailu bakoitzeko kilometraje-kostua kalkulatzeko kontuan hartu ziren ibilgailuen 2010eko gastuak (aseguruak, erregaia, konponketak, bidesariak) eta ekitaldi horretan egindako kilometroak. Kilometroko 0,1178 euroko kostua kalkulatu zen 2010erako, eta ehuneko 2,80 igo zen 2011. urterako, kilometroko 0,12 euroraino.

Zeharkako kostutzat egotzi diren gastu orokor guztiak, bai administrazio eta kudeaketa arloetako langileenak bai gainerako ustiapen-gastuak, identifikaturik daude enpresaren kontabilitate-erregistroetan, eta kontabilizaturik kostu-zentroetan nahiz galeren eta irabazien kontuan.

### Berrikusi diren ITG Agrícolarentzako mandatuak

• “Landareen Ekoizpen eta Osasun Atalari izurrien aurkako borrokan laguntzeko lanak”

Mandatu horrek 95.026 euroko (BEZik gabe) aurrekontua izan zuen. Aurrekontuaren zenbateko osoa fakturatu zen. Ehuneko 86 dagokie mandatuan aritu ziren enpresa publikoko langileen gastuei, eta gainerakoa zuzeneko hainbat gasturi.

Langileen gastuak 2011ko ekitaldirako onetsitako prezioetan fakturatu ziren. Egiaztatu da fakturatutako zuzeneko gastuak, 13.315 eurokoak, fakturen bidez justifikaturik daudela.

## V.5. NAVARRA DE SERVICIOS Y TECNOLOGÍAS, S.A.U.

Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A.U. (NASERTIC) sozietate publikoa sortu zen Navarra de Servicios, S.A. (NASERSA), Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A. (OPNATEL) eta Producción informática de Navarra, S.L (PIN) sozietate publikoek bat egin zutenean.

NASERTIC sozietatearen xedea da zerbitzuak egitea administrazio publikoentzat eta horien mendeko erakunde, sozietate edo entitateentzat, honako arlo hauek landuz: lege, ekonomia eta kontabilitate gaietarako eta giza baliabideei buruzko zerbitzu profesionalak, prestakuntza, antolaketa eta aholkularitza, teknologiaren eta komunikazio elektronikoen arloko zerbitzuak, informatikako zerbitzuak eta laborategiko zerbitzuak.

Hona hemen NASERTIC, S.A.ren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren adierazle batzuk, eurotan:

| | Zenbatekoa |
|---|---|
| Negozio-zifra | 19.750.878 |
| Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, ustiapenerako | 1.491.800 |
| Hornidurak | 12.012.924 |
| Langile-gastuak | 5.093.035 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 1.467.659 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 2.619.534 |
| Ustiapeneko emaitza | 320.625 |
| Emaitza finantzarioa | -229.027 |
| Zerga aurreko emaitzak | 91.598 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak NASERTIC, S.A.ren negozio-zifraren ehuneko 89,5 izan ziren 2011n, enpresa publikoaren ustiapen-gastuen ehuneko 84 finantzatzeko adina. Kontuan hartzen baditugu NASERTICek Nafarroako Gobernutik jaso zituen ustiapenerako diru-laguntzak, Foru Administraziotik jasotako diru-sarrerek sozietate publikoaren gastu osoen ehuneko 91 finantzatu zuten.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua erkatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | 2010/12/31 | | | | 2011/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| | NASERSA | OPNATEL | PIN | Guztira | NASERTIC |
| Zuzendaritzakoak | 1 | 1 | | 2 | 3 |
| Goi mailako tituludunak | 29 | 6 | 4 | 31 | 56 |
| Erdi mailako tituludunak | 6 | 7 | 6 | 18 | |
| Administrariak | 9 | 4 | 11 | 19 | 18 |
| Gainerako langile kualifikatuak | 11 | 14 | 4 | 28 | 38 |
| Kualifikazio gabeko langileak | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| **Langileak, guztira** | **57** | **32** | **25** | **114** | **116** |
| **Langileen kostua, guztira** | **2.258.000** | **1.481.282** | **1.116.660** | **4.855.942** | **5.093.035** |
| Langileen batez besteko kostua | 39.614 | 46.290 | 44.666 | 42.596 | 43.905 |

Foru Komunitateko Administrazioak 2011n 30 mandatu egin zizkien NASERTIC sortzeko bat egindako sozietateei, guztira 13.071.901 eurokoak (BEZik gabe). Mandatu horietatik, honako lagin honetan bederatzi aztertu dira, guztira 10.623.029 eurokoak:

| Departamentua/ Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua BEZik gabe | Hirugarrenei kontrataturiko % 50etik gorako portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | OPNATEL | Korporazio sarea | 518.800 | 56 |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | OPNATEL | Telekom. Azpiegituren Plana | 1.997.702 | 88 |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | OPNATEL | Foruzaingoaren monitorizazioa | 370.310 | 92 |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | PIN | Laguntza zentroa 2011 | 2.188.058 | 86 |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | PIN | Informatika gunearen kudeaketa | 4.164.075 | 67 |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | NASERSA | Herritarrei informazioa emateko sistemaren kudeaketa | 1.048.426 | |
| Kultura, Turismoa eta Erak. Harrem. | NASERSA | Informazioa jaso eta hedabideei arreta egitea | 164.277 | |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | NASERSA | Analisi toxik. eta biologikoak. Foruzaingoa | 120.549 | |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | NASERSA | Analisi toxik. eta biologikoak. Auzit. Medik. Inst. | 50.832 | |
| | | **Lagineko mandatuak, guztira** | **10.623.029** | |
| | | NASERTIC, S.A.rentzako mandatuak, guztira, 2011n | 13.071.901 | |

2012. urterako, NASERTICek mandatuetako lan-eskuaren tarifak kalkulatu zituen lanbide-kategoria bakoitzeko langileen 2012ko batez besteko soldatetatik abiatuta, urteko 1.592 orduetatik 1.258 hartuz benetako lan ordutzat. Gastu orokorren ehuneko 16ko portzentajea ezarri zen NASERTICek egindako prestazioetarako eta ehuneko hirukoa hirugarrenekiko kontratazioetarako.

## V.5.1. OPNATEL

### OPNATELi egindako mandatuen prezioak

OPNATELek 2008tik 2011ra bitartean jasotako mandatuen baldintza ekonomikoen agiria Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren uztailaren 4ko 284/2008 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Mandatuek OPNATELen 2010eko negozio-zifraren ehuneko 81 egin zuten.

OPNATELentzako mandatuen prezioan kontzeptu hauek sartu ziren: lan-eskuaren kostua eta gastu orokorrak.

Lan-eskuaren orduko kostua 2009. urtean kalkulatu zuen OPNATELek, lanbide-kategoria bakoitzeko batez besteko soldatan oinarrituta. Enpresak adierazi digunez, benetako lan ordutzat jotzen dira urteko 1.592 orduen ehuneko 75. Hala ere, irizpide hori aplikatuz ateratzen diren tarifak OPNATELek ezarri zituenak baino handiagoak dira, ehuneko zazpitik hamaikara bitarteko aldearekin.

Gastu orokorren egozpen-portzentaje hauek ezarri ziren, mandatua zein arlori zegokion:

- Ustiapen eta mantentze arloa: ehuneko 15
- Azpiegituren eta telebistaren arloa: ehuneko 5,15
- Ingeniaritzaren eta proiektuen arloa: ehuneko 6,40

• Ustiapen eta mantentze arloa: ehuneko 15

• Housing-a: ehuneko 16,30

Portzentaje horiek langile-kostuaren gainean eta OPNATELek hirugarrenekin kontratatzen dituen zerbitzuen gainean aplikatzen dira.

Ezin izan dugu egiaztatu nola ezarri ziren gastu orokorren egozpen-portzentajeak.

**Berrikusi diren OPNATELentzako mandatuak**

Berrikusitako hiru mandatuetan, OPNATELek 2009an ezarritako prezioetan fakturatu zituen lan-eskua, zentro teknologiko eta industrialdeetako konektibitaterako (zuntz optikoa) lanak egin eta zuzentzeko mandatuan izan ezik, horretan ehuneko 1,4 igo baitzituen 2009ko prezioak (Estatuko 2008ko KPIaren arabera).

• “Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio sare eta zerbitzuak kudeatu eta ustiatzea”

Mandatu hori onetsi zenean 639.047 euroko (BEZik gabe) hasierako aurrekontua ezarri zen. Zenbateko hori ehuneko 19 beheratu zen, 518.800 euroraino, aurrekontuen egonkortasunaren helburua betetzeko 2011ko azaroan onetsi zen aldaketaren ondorioz.

Administrazioari 518.800 euroko (BEZik gabe) zenbatekoa fakturatu zitzaion. Horretatik ehuneko 56 dagokie OPNATELek hirugarrenekin kontratatu zituen zerbitzuei.

Gastu orokorrengatik ehuneko 15 aplikatu zuen OPNATELEk, bai langile-kostuaren gainean bai kanpo-kontratazioen gainean.

OPNATELek hirugarrenekin kontratatu zuen mandatuaren exekuzioa hiru laguntza-kontratu hauen bitartez (zenbatekoak eurotan daude):

| | Adjudikazio-prezioa, BEZik gabe | Gauzatua |
|---|---|---|
| Sareak eta zerbitzuak egoitza nagusietan | 106.515 | 101.431 |
| Sareak eta zerbitzuak urruneko egoitzetan | 108.620 | 103.535 |
| Telefonoguneen 2. maila | 92.662 | 84.662 |

Kontratuak prozedura irekiaren bidez adjudikatu ziren, eta kontratazioa Kontratuei buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu zen. Kontratuak aurreikusi baino gutxiago gauzatu ziren, beherantz aldatu zirelako, mandatuaren aurrekontuaren beherapenaren ondorioz.

• “Telefonia finkorako eta mugikorrerako legezko intertzeptazioen kontrola, jarraipena eta grabazioa, datu-paketeak, Interneteko intertzeptazioa eta operadoreekiko integrazioa, Nafarroako Foruzaingoarentzat”

Mandatu horri 2010etik 2013ra bitarteko eperako 1.876.200 euroko (BEZik gabe) aurrekontua ezarri zitzaion, eta geroago ehuneko 19 beheratu zen.

2011rako behin betiko aurrekontua 370.310 eurokoa izan zen (BEZik gabe). Zenbateko horixe fakturatu zion OPNATELek Administrazioari. Ehuneko 92 hirugarrenekin kontratatuteriko zerbitzuei dagokie, eta gainerakoa, mandatuan aritu diren enpresa publikoko langileen kostuari.

Bai langile-kostuak bai kanpoko kontratazioen gastuak ehuneko 6,4 hazi ziren, gastu orokorrak egoztearen ondorioz.

OPNATELek hirugarrenekin kontratatu zituen monitorizaziorako eta telekomunikazio elektronikoen arloko zerbitzuen operadoreekiko konexiorako zentroa eratzeko lanak. Kontratua 2010. urtean adjudikatu zen 1.286.000 euroko prezioan, lau urterako, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Bi enpresa gonbidatu ziren. Prozedura hori konfidentzialtasun arrazoiengatik justifikatu zen, datuak isilpekoak zirelako.

• "Telekomunikazioetarako Azpiegituren Epe Luzerako Planean zehazturik dauden zentro teknologikoen eta industrialdeen konektibitatea"

Mandatuaren xedea zen, 2011rako, aipatutako konektibitate lanak egin eta zuzentzea Iruña-Tutera, Iruña-Los Arcos eta Iruña-Elo tarteetan.

2011rako aurrekontuari (2.991.008 euro, BEZa barne) 333.720 euro kendu zitzaizkion eta 300.000 euro aldatu ziren 2012ko aurrekontura, 2011ko ekitaldian defizit helburua bete ahal izateko.

OPNATELek Administrazioari 1.513.571 euro (BEZik gabe) fakturatu zizkion 2011n. Fakturazioan ehuneko 5,15 gehitu zitzaien bai OPNATELen langile-kostuari bai kanpoko kontratazioei, gastu orokorrak egoztearen ondorioz.

OPNATELek hirugarrenekin kontratatu zituen enkargatutako lanen ehuneko 88. Kontratazio hauek berrikusi dira (zenbatekoak eurotan daude):

| | | Prozedura | Lizitazio-prezioa | Zenbat lizitatzaile | Adjudikazio-prezioa, BEZik gabe |
|---|---|---|---|---|---|
| Hornidura | Zuntz optikozko kablea, Iruña-Tutera | Irekia, Europako publ. gabe | 426.000 | 5 | 377.659 |
| Obra | II. proiektuko X. tartea | Irekia, Europako publ. gabe | 334.250 | 10 | 289.100 |
| Obra | II. proiektuko IX. tartea | Irekia, Europako publ. gabe | 316.884 | 9 | 231.325 |

Kontratazio-espedientearen izapideak eta adjudikazioa Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera egin ziren.

### V.5.2. PIN

#### Prezioen zehaztapena PINen

PINen esku utzitako lanen baldintza ekonomikoak abuztuaren 5eko 537/2010 Foru Aginduaren bidez onetsitako agiriak arautzen ditu, 2010etik 2014ra bitarteko aldirako.

Mandatuen bidezko diru-sarrerak 2010ean PINen negozio-zifraren ehuneko 97 izan ziren.

PINek Foru Administraziotik jasotzen zituen mandatuetarako onetsi zuen prezioa honako kontzeptuetan banatu zen:

- Mandatuko lanetan ari ziren enpresa publikoko langileen kostua
- Kanpoko kontratazioen gastuak
- Zeharkako kostuengatik, ehuneko 15, bai zuzeneko langile-kostuari bai PINek hirugarrenekin egindako kontratazioei aplikatua.

Kanpoko kontratazioen kasuan, ehuneko 15eko portzentaje horren ordez ehuneko hirukoa aplikatuko da, baldin eta mandatuaren ehuneko 50 baino gehiago kontratatzen bada hirugarrenekin, edo ehuneko 1,5ekoa, baldin eta mandatuko prestazio osoa kontratatzen bada.

Langileen kostua lanbide-kategoria bakoitzerako kalkulatu zen, oinarritzat harturik soldaten guztizko kostua, gizarte segurantza, bizi aseguruak, absentismoa eta oporrak, eta kaleratzeengatiko kalte-ordainen kostua.

Zeharkako kostuen egozpen-portzentajeak zehazteko, kontuan hartu ziren zuzendaritza eta administrazioko langileen gastuak eta mandatuari zuzenean egotzi ezin zitzaizkion gainerako ustiapen-gastuak.

Kalkuluak 2009ko ekitaldiko datuen arabera egin ziren, eta kostuak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, ekitaldi horretako galeren eta irabazien kontuan identifikaturik daude.

**Berrikusi diren PINentzako mandatuak**

• “Tresneria informatikoaren mantentzea eta lehen mailako laguntza (CAU)”

PINentzako mandatuaren hasierako aurrekontua 2.276.402 eurokoa (BEZik gabe) izan zen, eta gero ehuneko lau kendu zitzaion, 2.188.058 eurora (BEZik gabe) murriztuz.

2011n 2.188.0.34 euro (BEZik gabe) fakturatu ziren. Ehuneko 86 dagokie PINek hirugarrenekin egindako kontratazioei, zeinak Administrazioari fakturatu baitzitzaizkion ehuneko hiru (56.316 euro) gehituta, gastu orokorrengatik.

PINek zerbitzu hauek kontratatu zituen:

| | Prozedura | Lizitazio-prezioa | Zenbat lizitatzaile | Adjudikazio-prezioa, BEZik gabe | Gauzatua |
|---|---|---|---|---|---|
| Laguntza informatikoa | Irekia, Europan publizitatea eginda | 1.520.870 | 5 | 1.520.870 | 1.528.162 |
| Tresneria inform. mant. | | 385.002 | 2 | 385.000 | 387.014 |

Kontratazio-espedienteen izapideak eta adjudikazioa Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera egin ziren.

PINeko langileak arduratu ziren hirugarrenekin kontrataturiko zerbitzua koordinatu eta kontrolatzeaz, eta 2010erako onetsitako prezioetan fakturatu zen.

• “Informatika gunearen kudeaketa eta ustiapena”

Mandatu horri 2011. urterako 4.261.533 euroko (BEZik gabe) aurrekontua ezarri zitzaion. Gero 97.458 euro kendu ziren, 2011ko azaroan aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzeko onetsi zen aldaketaren ondorioz.

PINek 4.164.031 euro fakturatu zizkion Administrazioari. Zenbateko horretatik ehuneko 67 dagokie PINek hirugarrenekin kontratatu zituen gastuei, eta gainerakoa dagokie mandatuan aritu ziren enpresa publikoko langileei.

PINek kanpoko kontratazioen gastuak ehuneko hiru handituta fakturatu zizkion Departamentuari, gastu orokorrak zirela eta. Hau da, 83.765 euro fakturatu zituen kontzeptu horrengatik.

PINek hirugarrenekin kontrataturiko zerbitzu nagusia Mainframe plataformarako laguntza sistema da, hots, makinen, programen eta zerbitzuen hornidura, 9.405.000 euroko (BEZik gabe) prezioan, 2010etik 2013ra bitarteko urteetarako. Finantza-errentamenduko kontratua sinatu zen, erosteko aukeraduna. Administrazioaren aurrekontu-murrizketen ondorioz kontratua aldatu egin zen, 1.547.999 euro kenduz.

Kontratua 2009an adjudikatu zen, prozedura negoziatuaren bidez, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe, argudiatuz lizitatzaile jakin batek soilik eman ditzakeela zerbitzuak, eskubide esklusiboak babestu behar direlako. Adjudikazio-prezioa lizitazio-prezioa bera izan zen.

PINek bere langileen bitartez egin zituen mandatuko kudeaketa eta koordinazio lanak. 20 laguneko taldea jarri zuen lan horietan. Langile horien kostua 2010eko ekitaldirako onetsitako prezioetan fakturatu zen: guztira, 1.288.000 euro, BEZik gabe.

### V.5.3. NASERSA

**NASERSAri egindako mandatuen prezioak**

NASERSAri 2011n enkargatutako lanen baldintza ekonomikoak azaroaren 17ko 701/2010 Foru Aginduaren bidez onetsitako agiriak arautu zituen.

Mandatuen bidezko diru-sarrerak 2010ean NASERSAren negozio-zifraren ehuneko 88 izan ziren.

Honako kontzeptu hauen batura da mandatuen prezioa: zuzeneko langileen kostuak, gastu orokorrak, dietak eta joan-etorriak, eta erosketak eta kanpoko kontratazioak.

Zuzeneko langileen kostuak lanbide-kategoriaka kalkulatzen dira, kontzeptu hauek egotziz: mandatuan zuzenean diharduten langileen –egiturazko langileak barne– ordainsari gordina, gizarte segurantza, langileak hautatzeko kostuak eta kontratuaren amaierako kalteordaina. Horrela kalkulatutako langile-kostuari ehuneko 20 aplikatzen zaio gastu orokorrengatik.

Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu zen zuzeneko langile-kostuen gainean zenbateko portzentajea egiten zuten zeharkako langileen (kudeaketa, administrazioa eta informatika) kostuek, administrazio kontseiluaren dietek, langileen aseguruek eta kanpoko zerbitzuengatiko eta ibilgetuaren amortizazioagatiko gastuen ehuneko 25ek.

Kostu guztiak, bai zuzenekoak bai zeharkakoak, NASERSAren 2010eko ekitaldiko kontabilitatean identifikaturik daude.

NASERSAk 2011ko ekitaldirako onetsi zituen tarifak 2010eko ekitaldirako kalkulatutakoak baino ehuneko 2,2 handiagoak izan ziren.

**Berrikusi diren NASERSArentzako mandatuak**

• “Informazioa jaso eta hedabideei arreta egitea, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko informazioak direla eta”

Mandatu horretarako 164.277 euroko (BEZik gabe) aurrekontua onetsi zen.

NASERSAk bere baliabideak erabili zituen enkargatutako zerbitzua emateko. Administrazioari 123.197 euro fakturatu zizkion, urteko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei zegokien zenbatekoa. Ez zituen egin 2011ko laugarren hiruhilekorako enkargatutako zerbitzuak, Gobernuak, 2011ko abenduan, mandatua suntsiaraztea eta 32.856 euroko (BEZik gabe) gastua bertan behera uztea erabaki zuelako.

Aurrekontuan jasotako kontzeptu berak fakturatu dira, 2011rako onetsitako prezioetan.

• “Toxikologiako eta biologia molekularreko analisiak”

Bi mandatu onetsi ziren, eta aurrekontu hauek izan zituzten (BEZik gabe):

a) 50.832 euro, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuarentzat analisiak egiteko

b) 120.549 euro, Foruzaingoarentzat analisiak egiteko

NASERSAk badu laborategia eta bere langileen bidez egiten ditu analisiak.

NASERSAk aurrekontuaren zenbateko osoa fakturatu zion Administrazioari, 2011n laneskuarentzat onetsitako prezioetan. Mandatu honen aurrekontua ez da egin beharreko analitiken arabera kalkulatzen, analitikak egiteko behar diren baliabideen arabera baizik.

Departamentua mandatuaren prezioa kalkulatzeko beste modu bat aztertzen ari da: egindako analisien kopuruaren araberako formula misto bat erabiltzea, urtean zenbateko finko bat (erabilgarri dagoen azpiegituragatik) eta, hasierako atalasea gainditutakoan, zati aldakor bat ezarriz, analisi bakoitzeko prezio unitarioarekin.

• “Herritarrei informazioa emateko sistema orokorraren kudeaketa”

Mandatu horrek hainbat jarduera biltzen ditu, besteak beste informazio administratiboa ematea, eskaerak eta agiriak erregistratzea eta iradokizun eta kexak jasotzea. Zerbitzu horiek Iruñeko eta Tuterako Inf012navarra bulegoetan ematen ziren, eta 012 informazio-telefonoan eta jarduera ekonomikoak izapidetzeko bulegoan.

Hasiera batean 2011rako onetsitako aurrekontua 1.133.173 eurokoa (BEZik gabe) zen. 2011ko azaroan mandatuari 84.747 euro (BEZik gabe) kentzea erabaki zen, aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzeko.

2011n 1.048.382 euro (BEZik gabe) fakturatu ziren. Zenbateko horretatik 550.638 euro dagozkio mandatuan aritutako NASERSAko langileen kostuari. Hamasei langile aritu ziren, lanaldi osoan. Langileen kostua NASERSAk 2011rako onetsitako prezioetan fakturatu zitzaion Administrazioari. Informazio sistemetan egindako gastua 189.000 eurokoa (BEZik gabe) izan zen, eta ANIMSA sozietate publikoak egin zuen zerbitzu hori, NASERSArekin hitzarmena sinatuta.

NASERSAk hirugarrenekin kontratatu zituen bulegoetako segurtasuna eta lokalen alokairua.

2012. eta 2013. urteetan langile gutxiago jarri ziren lanean mandatu honetan, eta itxi egin ziren Iruñeko bulegoa eta jarduera ekonomikoak izapidetzeko bulegoa. Herritarrei telefonoz arreta emateko zerbitzua, lehen ANIMSAk egiten zuena, TRACASAren esku utzi da.

## V.6. NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA, S.A.U.

Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA) sozietatea 2011n sortu zen, enpresa hauek batu zirenean: Viviendas de Navarra, S.A. (VINSA), Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA) eta Navarra de Suelo residencial, S.A. (NASURSA).

NASUVINSAren xede soziala Nafarroako Foru Komunitateko lurralde- eta hirigintza-garapena da, eta, halaber, lurzoruaren sustapena eta kudeaketa, eta mota guztietako higiezinena, batez ere etxebizitza babestuena.

Hona hemen NASUVINSAren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren adierazle batzuk, eurotan:

| | Zenbatekoa |
|---|---:|
| Negozio-zifra | 114.224.780 |
| Hornidurak | 46.132.223 |
| Langile-gastuak | 3.775.807 |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 4.051.121 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 3.466.409 |
| Ustiapeneko emaitza | 20.609.484 |
| Emaitza finantzarioa | -1.707.919 |
| Zerga aurreko emaitzak | 18.901.565 |

Mandatuen bidezko diru-sarrerak 2011n NASUVINSAren negozio-zifraren ehuneko 1,16 besterik ez ziren izan. Enpresaren ustiapeneko emaitza 20,61 milioi eurokoa izan zen 2011n.

Hurrengo taulan, enpresek 2010ean, bat egin aurretik, izan zituzten langileen kopurua eta langileria-kostua erkatzen dira bat-egitearen ondoriozko enpresa berriak 2011n izandakoekin.

| | 2010/12/31 | | | | 2011/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| | VINSA | NASUINSA | NASURSA | Guztira | NASUVINSA |
| Zuzendaritzakoak | 1 | 9 | 1 | 11 | 4 |
| Goi mailako tituludunak | 6 | 3 | 19 | 28 | 31 |
| Erdi mailako tituludunak | 4 | | 4 | 8 | 14 |
| Administrariak | 34 | 3 | 8 | 45 | 44 |
| Gainerako langile kualifikatuak | | 2 | 1 | 3 | |
| Kualifikazio gabeko langileak | | 1 | | 1 | 1 |
| **Langileak, guztira** | **45** | **18** | **33** | **96** | **94** |
| **Kostua, guztira** | **1.511.081** | **992.918** | **1.503.058** | **4.007.057** | **3.775.807** |
| Batez besteko kostua | 33.580 | 55.162 | 45.547 | 41.740 | 40.168 |

2012. urtean NASUVINSAk, lanbide-kategoria bakoitzeko orduaren zuzeneko kostua kalkulatzeko, bat egindako hiru enpresetako bakoitzeko orduaren batez besteko kostua hartu eta bertako langileen kopuruaren arabera haztatu zuen. Orduaren zuzeneko kostuari ehuneko 36,10eko portzentajea aplikatu zion zeharkako kostuengatik.

NASUVINSAn batuko ziren sozietateek 2011ko ekitaldian 15 mandatu jaso zituzten, guztira 1.586.298 eurokoak (BEZik gabe). Lagin honetan sei mandatu aztertu dira, guztira 1.053.885 euro egiten dutenak:

| Departamentua/ Erak. auton. | Sozietate publikoa | Mandatuaren xedea | Aurrekontua BEZik gabe | Hirugarrenekiko kontratua (%) |
|---|---|---|---|---|
| Sustapena eta Etxebizitza | VINSA | Etxebizitza erabiliak alokatzeko programa | 254.152 | |
| Sustapena eta Etxebizitza | VINSA | Alokatze-poltsaren defizita | 400.000 | |
| Sustapena eta Etxebizitza | VINSA | Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen kudeaketa | 50.854 | |
| Sustapena eta Etxebizitza | NASURSA | Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala | 60.550 | 100 |
| Lehendakaritza, Adm. Publ. eta Barnea | NASURSA | Segurtasunaren Hiriko udalez gaindiko plan sektoriala | 234.575 | 100 |
| Landa. Gar., Ind., Enpl. eta Ingurumena | NASUINSA | Izizeko industrialdeko urbanizazioa | 53.754 | 78 |
| | **Lagineko mandatuak, guztira** | | **1.053.885** | |
| | NASUVINSA, S.A.rentzako mandatuak, guztira, 2011n | | 1.586.298 | |

### V.6.1. VINSA

#### VINSAri egindako mandatuen prezioak

Ekainaren 10eko 99/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi zen VINSArentzako mandatuak arautzen dituen baldintza ekonomikoen agiria.

VINSAren negozio-zifra 2010eko abenduaren 31n 164 milioi eurokoa zen. Guztizko zenbateko horretatik ehuneko 0,2 zegokien mandatuen bidezko diru-sarrerei.

VINSAri egindako mandatuen prezioan enpresako langileen kostua sartzen da, kontzeptu hauen arabera kalkulatua:

- Zuzeneko kostuak: lanbide-kategoria bakoitzeko batez besteko kostua (ordainsari gordinak eta gizarte segurantza).
- Zeharkako kostuak: zuzeneko langile-kostuaren gainean ehuneko 39,67ko portzentajea aplikatzen da. Portzentaje hori kalkulatzeko kontuan hartu ziren, soilik, proiektuei esleitu gabeko langileen (hiru langile) ordainsarien ehuneko 0,82a eta ustiapeneko nahiz ibilgetuaren amortizazioko gastuen ehuneko 1,65a.

Baldintza ekonomikoen agirian azaltzen denez, zeharkako kostuen egozpen-portzentajea enpresa publikoaren 2011ko gastuen aurrekontuko egitura-kostuetan oinarrituta kalkulatu zen. Enpresak, ordea, bestelako aurreikuspenak sartu zituen Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorretan.

**Berrikusi diren VINSArentzako mandatuak**

• "Etxebizitza erabiliak alokatzeko programa eta gazteen emantzipaziorako oinarrizko errenta kudeatzea"

VINSAk aurrekontuaren zenbateko osoa (254.152 euro, BEZik gabe) fakturatu zion Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari, 2011ko ekitaldirako onetsitako prezioetan.

Alokairu-poltsaren kudeaketan, etxebizitza laga duen jabeari prezioa ordaindu behar zaio bost urte eta erdian, eta jabeari ordaindutakoa baino prezio merkeagoan alokatu behar da etxebizitza bost urtean. Jarduera horrek eragiten duen defizita betetzeko, Gobernuak gehienez 400.000 euro ematen dizkio VINSAri. 2011n 517.650 euroko defizita sortu zen 138 etxebizitza alokatzearen ondorioz.

Emantzipaziorako oinarrizko errenta kudeatzeko, VINSAk, funtsean, eskaerak jasotzen zituen, txostenak eta ebazpen-proposamenak egiten zituen Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak onets zitzan, eta laguntzak emandakoan espedienteen jarraipena egiten zuen. Laguntza berriak emateari utzi zitzaion 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.

• "Etxebizitza babestuen eta horien eranskinen salerosketan Foru Komunitateko Administrazioak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko daukan eskubidearen erabilera kudeatzea"

Departamentuari mandatuaren aurrekontu osoa fakturatu zitzaion, hau da, 50.854 euro (BEZik gabe), 2011rako onetsitako prezioetan, egindako lanen oroitidazkia aurkeztu eta gero.

2011n VINSAk 10 etxebizitza eskuratu zituen lehentasunez erosteko eskubidea baliatuz, 2012an bat ere ez. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak 2013an kudeatzeko ardura Departamentuak hartu du bere gain.

### V.6.2. NASURSA

**NASURSAri egindako mandatuen prezioak**

Apirilaren 27ko 57/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi zen NASURSArentzako mandatuak arautzen dituen baldintza ekonomikoen agiria.

NASURSAren 2010eko negozio-zifratik, 794.858 euro, ehuneko 82, mandatuen bidezko diru-sarrerei dagokie.

Langileen orduaren kostuak kontzeptu hauek biltzen ditu:

• Zuzeneko kostuak: mandatuari esleitutako langileen batez besteko ordainsariak.

• Zeharkako kostuak: lanbide-kategoria bakoitzeko langileen zuzeneko kostuaren ehuneko 39,88. Portzentaje hori kalkulatzeko, egitura-kostuak (zeharkako langile-kostua eta ustiapen-gastuak) zuzeneko langileen kostuez zaitu ziren.

Kostuak kalkulatzeko sistema horretatik hauxe nabarmendu behar dugu:

• Egotzitako ustiapen-gastuak 2010erako zenbatetsitako gastuen ehuneko zortzi besterik ez dira. Ez dira kontuan hartu tokiko sareen jarduerari dagozkion gastuak.

• Ekitaldiari egotzitako ibilgeturako diru-laguntza deskontatu egin zen.

Egiaztatu da kostuak kontabilitatean identifikaturik daudela eta bat datozela 2010eko ekitaldirako egindako zenbatespenekin. Zenbatespen horiek ekitaldi horretako benetako gastuak baino txikiagoak suertatu ziren.

NASURSAk kanpoko kontratazioak Administrazioari fakturatzeko ezartzen duen prezioa ziurtagirien arabera egindako gastua da, zeharkako kostuen egozpenik gabe.

**Berrikusi diren NASURSArentzako mandatuak**

• “Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala eta bertako lurzoruaren mugimenduei buruzko azterlana egitea”

Mandatu horrek 2011rako 60.550 euroko aurrekontua izan zuen (BEZik gabe). 2011n 57.200 euro (BEZik gabe) fakturatu ziren: 54.000 euro, testu bateginaren idazketa bukatutakoan (kontrataturiko guztiaren ehuneko 10), eta 3.200 euro, inklinometroen jarraipen lanengatik.

NASURSAk aurrekontuan zeuden kontzeptu berengatik eta 2011rako onetsitako prezioetan fakturatu zion Gobernuari.

Sozietate publikoa arduratu zen udalez gaindiko plan sektorialaren koordinazioaz eta zuzendaritzaz, eta plana egiteko lana hirugarrenei kontratatu zitzaien.

Mandatu hau 2008. urtean sortu zen. 2008tik 2011ra bitartean 868.987 euroko (BEZik gabe) gastua eragin zuen; gastu horretatik ehuneko 73, hots, 635.425 euro, kanpoko kontratazioei dagokie, eta gainerakoa, 233.562 euro, enkargatutako lanak koordinatzen eta zuzentzen aritutako NASURSAko langileen kostuari.

NASURSAk 2007an adjudikatu zuen Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala egiteko kontratua, 380.000 eurotan, 431.034 euroko lizitazio-prezioa ezarrita. Aldez aurretik ideien lehiaketarako deialdia egin zuen eta prozedura negoziatua izapidetu zuen, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe. 2009ko abenduan kontratuaren prezioa igo egin zen, 160.000 euro gehituz, jarduketa eremuari 594.752 $m^2$ gehitu zitzaizkiolako eta eraikigarritasuna handitu zelako.

Gendulaingo hirigintza-eragiketan 18.000 etxebizitza aurreikusten dira. Onetsitako planeamendua (udalez gaindiko plan sektoriala) garatzeko fasean dago. NASURSAk 2011n bi exekuzio-unitateren birzatiketa proiektuak egiteko laguntza juridikoa kontratatu zuen.

• “Segurtasunaren Hiriko udalez gaindiko plan sektoriala egitea”

Hasiera batean 1.648.303 euroko (BEZa barne) aurrekontua onetsi zen, eta horietatik 1.500.000 euro ziren 2011ko ekitaldirako. Hala ere, Foru Administrazioaren 2011rako aurrekontuan 298.000 euro besterik ez ziren jarri. Aurrekontuan aldaketa egin eta 598.190 euro gehiago jartzea onetsi zen, eta azkenik kontusailean 896.190 euroko baliabideak gelditu ziren. Ez ziren nahikoa 2011rako onetsitako 1.500.000 euroko gasturako.

2011ko ekainean mandatuaren aurrekontua murriztu zen, 250.000 euro (BEZa barne) kenduz, eta 2011rako baimendutako gastutik 353.410 euro 2012ko ekitaldira aldatu ziren. 2011ko azaroan urte anitzeko gastu konpromisoa aldatu egin zen eta 619.392 euroko obligazio ekonomikoak 2012ko ekitaldira pasatu ziren.

2012ko irailean mandatua suntsiarazi zen eta 502.451 euro liberatu ziren. Gobernuari 895.309 euroko (BEZa barne) gastua fakturatu zaio, hasieran onetsitako aurrekontua baino ehuneko 46 gutxiagokoa. Ehuneko 76 hirugarrenekiko kontratazioei dagokie, eta gainerakoa, udalez gaindiko plan sektorialaren koordinazioan eta zuzendaritza teknikoan aritu diren sozietate publikoko langileen kostuari, 2011rako onetsitako prezioetan fakturatuta. Ez da gastu orokorrik aplikatu kanpoko kontratazioen gainean.

2011. urtean, NASURSAk udalez gaindiko plan sektoriala eta azterlan osagarriak (urbanizazio proiektua, segurtasun plan zuzentzailea eta eraikuntzen aurreproiektuak) egiteko kontratua adjudikatu zuen 765.000 euroko (BEZik gabe) prezioan, prozedura irekiaren bidez eta eskaintza onuragarriaren irizpidea erabiliz, 15 hilabeteko exekuzio epea ezarrita. 900.000

euroko (BEZik gabe) lizitazio-prezioa jarri zen. Bederatzi lizitatzaile aurkeztu ziren. Kontratua 2011ko martxoaren 15ean sinatu zen.

